



IMAZ ZUBIAUR, Leire

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Zuzenbide Zibila Saila
Agirre Lehendakaria Etorb., 83
48015 Bilbo
leire.imaz@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 20; 69-100]

Sarrera eguna: 2010.12.12
Onarpen eguna: 2010.12.29

Euskal lurraldeen berezko sistema judiziala. Iraganaren eta etorkizunaren arteko zubia marrazteko erronka

(The Basque Territories' Own Judicial System. The Challenge of Building a Bridge between the Past and the Future)

Euskal lurraldeek, Hegoaldeko Euskal lurraldeek, mendetan zehar, euren foru-erantzua diziplina-aniztunaren baitan, berezko sistema judiziala izan dute; foruetan jasotzen zen orotariko araudia interpretatu eta aplikatzeko 'etxeko' epaileen protagonismo argian oinarritutakoa. Iparraldeko euskal lurraldeek Frantziako 1789ko Iraultzarekin batera galdu zuten; Hegoaldekoek, aldiz, 1876ko uztailaren 21eko foru-abolizio legea zela medio. Azken hauek, 1978ko Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako autonomia-eredupean, Justizia Auzitegi Nagusietan kasazio-eta berrikuspen- helegiteak ezagutzeko eskumena soilik mantentzen dute.

Giltza-Hitzak: Foruak. 'Etxeko' epaileak. Autonomia estatutuak. Estatu autonomikoa. Foru-zuzenbidea. Justizia Auzitegi Nagusia. Kasazio-helegitea. Berrikuspen-helegitea.

Zos territorios vascos han contado durante siglos con un sistema judicial propio dentro del Régimen Foral multidisciplinar; éste estaba basado en el claro protagonismo de los jueces "de casa" que interpretaban y aplicaban el reglamento general recogido en los fueros. En las tierras vascas del norte, los fueros fueron abolidos con la Revolución Francesa de 1789; los de las tierras del sur, en cambio, mediante la Ley de Abolición de los Fueros del 21 de julio de 1876. Según el modelo autonómico reconocido por la Constitución Española de 1978, los vascos del sur solo conservan el derecho a conocer los recursos de casación y revisión en los Tribunales Superiores de Justicia.

Palabras Clave: Fueros. Jueces "de casa". Estatutos de autonomía. Estado autonómico. Derecho foral. Tribunal Superior de Justicia. Recurso de casación. Recurso de revisión.

Zes territoires basques ont possédé durant plusieurs siècles leur propre système judiciaire à l'intérieur du Régime foral multidisciplinaire ; ce dernier était basé sur le protagonisme évident des juges « de la maison » qui interprétaient et appliquaient le règlement général recueilli dans la juridiction. Sur les terres basques du nord, les « fueros » (compilations de lois) furent abolies avec la Révolution française de 1789 ; ceux des terres du sud, en revanche, par la Loi d'Abolition des Fueros du 21 juillet 1876. Selon le modèle autonome reconnu par la Constitution espagnole de 1978, les Basques du sud ne conservent que le droit de connaître les recours en cassation et en révision dans les Tribunaux supérieurs de Justice.

Mots-Clés : Fors. Juges « autochtones ». Statuts d'Autonomie. État autonome. Droit foral. Cour Supérieure de Justice. Pourvoi en cassation. Pourvoi en révision.



1. Sarrera. 2. Euskal lurraldeek mendetan zehar izan duten berezko sistema judizialaren azterketa xumea. 2.1. Ikusmira orokorra. 2.2 Euskal lurraldeen berezko sistema judizialaren ardatz nagusiak: foruak. 2.3. Espainiako 1931ko Bigarren Errepublika: euskal autonomia-estatutuak. 3. **Espainiako 1978ko Konstituzioa: Estatu Autonomikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren eskumena kasazio eta berrikuspen-helegiteei dagokienez.** 3.1. Abiapuntua: marko juridiko orokorra. 3.2. Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua: *zuzenbide zibila, forala edo berezia*. 3.3. Espainiako Konstituzioaren 149.1.6. artikulua: *prozedurazko berezitasunak*. Kasazio eta berrikuspen-helegiteen marko juridiko orokorra. 4. **Euskal zuzenbide zibilari buruzko prozedura judizialak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian: kasazioa eta berrikuspena.** 4.1. Kasazio-helegitea. 4.2. Berrikuspen-helegitea. 5. **Etorkizunerako erronkak.** 5.1. Eremu teknikoari dagokionez. 5.2. Eremu politiko-juridikoari dagokionez. 6. **Bibliografia.**

1. Sarrera

Hurrengo lerroek, Euskal lurraldeek mendetan zehar foru-eraentza diziplina-aniztunaren baitan izan duten sistema judizial propioaren eta egun indarrean dagoen 1978ko Espainiako Konstituzioaren 149.1.6. eta 149.1.8. artikuluek eskaintzen duten marko juridiko murriztailearen artean *kontraste lana* plazaratzea dute helburu. Eszenatoki juridikoaren ertz batetik begiratuta, izan ginena eta gaur garena ispiluren aurrean jartzea, alegia.

Lan honetan jorratzen diren gaiek *back stage* politikoa argia dutela ezin ukatu, ordea. Osagai juridikoak ideologikoekin nahasten dituen errezeta horietako bat da, derrigorrez. Horregatik, bibliografia anitza erabili da, kolore guztietako iritziak irakurri eta xertatu dira. Norberak bere burua kokatzeko hainbat ikuspuntu ezberdin atxiki egin dira, egungo errealitatea ahalik eta leialen islatzeko erronkari sendo utsiz.

2. Euskal lurraldeek mendetan zehar izan duten berezko sistema judizialaren azterketa xumea

2.1. Ikusmira orokorra

Goi Erdi Aroan, VIII eta XII. mendeen arteko garaian, eszenatoki juridikoaren bereizgarri nagusia *arauen sakabanaketa* izan zen¹: hiri-ordenamenduak ziren protagonistak, hiri bakoitzeko biztanleentzat hainbat aspektu juridiko arautzen zituzten lehenengo testu idatziak. Fenomeno horri *lokalismo juridikoa* esaten zaio, eta hirietan indarrean zeuden ordenamenduei, *zuzenbide lokalak*; bestela esanda, **foruak**. Foru hitza Goi Erdi Aroko hiztegi juridikoan gehien erabiltzen denetakoa da, Katalunian izan ezik, non ez baitute inoiz ere erabili. Foru hitzak hainbat adiera ditu: izan ere, forua aparteko arautzat hartu izan da, baina baita toki jakin batean indarrean dagoen ordenamendu juridikoa identifikatzeko termino gisa ere. Foruaren edukia abiapuntu hartuta, foru deitu izan zaio, halaber, lurralde edo herri baten zuzenbidea biltzen duen testuari ere. Esanahi horiek foruen artean egin beharreko bereizketa gauzatzeko lagungarriak dira.

Alde batetik, **foru laburrak** edo **foru frankoak** daude (hiri-gutunak)², erregeek eta jauntxoek hiri eta hiribilduei emandakoak, hiri horiek birpopulatzearen bertako biztanleei eskainitako pribilegioak biltzen dituztenak. Forua, kasu honetan, aparteko araua d100a, berezia, toki jakin batean indarrean dagoen euskarri juridikoa. Foru frankoen ondoan, ordea, herriak sortu eta erregeak onartutako foruak daude, herriaren ohiturak testu idatzi batean jasotzen dituzten **berezko foruak**. Forua, bigarren testuinguruan, herri edo lurralde baten zuzenbidea jasotzen duen testua da. Kronologiari erreparatuz, aurrena foru laburrak eman ziren hirietan, erregeak hiri bat sortzeko edo birpopulatzeke emandako tresna gisa. Aurreragoak dira berezko foruak, baina lurraldearen benetako zuzenbidearekin lotura estuagoa dute, herriaren ordezkariak idatzitakoak baitira, euren ohitura zaharrei sakon erreparatuta. Forudunen arteko elkarbizitza arautzeko berme

-
1. Goi Erdi Aroko arauen sistematizaziorik ezari buruz, ikus: LALINDE ABADÍA, J. "El sistema normativo vizcaíno". *Congreso de Estudios Históricos. Vizcaya en la Edad Media (Bilbao, 17-20 diciembre 1984)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1986; 121. or. Ildo beretik: ARVIZU Y GALARRAGA, F. *La disposición "mortis causa" en el Derecho español de la Alta Edad Media*. Iruñea, 1977; 253. or.; GARCÍA DE VALDEAVELLANO, L. *Estudios medievales de Derecho privado*. Sevillako Unibertsitatea, 1977; 323. or.; eta GARCÍA-GALLO, A. "Del testamento romano al medieval: las líneas de su evolución en España". *AHDE*, 47. liburukia. 1977; 449. or. Arauen sakabanaketa sakon jorratzen dute, halaber, honako hauek: TOMÁS Y VALIENTE, F. *Obras Completas*, II. liburukia, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales. Madril, 1997; 1.055. or.; GACTO FERNÁNDEZ, E.; ALEJANDRE GARCÍA, J.A.; GARCÍA MARÍN, J.M. *El Derecho histórico de los pueblos de España*. Madril: Complutense Unibertsitatea, 3. edizioa, 1984; 202. or.; FERNÁNDEZ ESPINAR, R. *Manual de Historia del Derecho español*, I. liburukia. Madril: Centro de Estudios Ramón Areces, 1. edizioa, 1989; 293. or.
 2. LALINDE ABADÍA, J. *Iniciación histórica al Derecho español*. Bartzelona: Ariel. 3. edizioa, 1983; 86 eta 87. or.; FERNÁNDEZ ESPINAR, R. *Manual de Historia...*, cit.; 299. eta 300. or.; CORONAS GONZÁLEZ, S.M. *Manual de Historia del Derecho español*. Valentzia: Tirant lo blanch, 1996; 120. eta 121. or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, F.; MONTERO, M. "Historia de Vizcaya". *Los orígenes, la Edad Media y el Antiguo Régimen*, I. liburukia. Donostia, 1980; 41-43. or. Foru terminoaren esanahiari buruz: TOMÁS Y VALIENTE, F. *Obras Completas*, cit.; 1.055. or.

sendoagoa eskaintzen duten testu juridikoak dira, jada indarrean dagoen ohiturazko zuzenbide bat, idatziz eta lege taxuz, jasotzen baitute³.

Euskal lurraldeetan ere, fenomeno hori oso adierazgarria izan zen. Lehenengo foruak laburrak izan ziren, XI. mendetik aurrera, zuzenki edo zeharka, errege ezberdinek euskal hiribilduei emanak, horiek birpopulatzeko edo sendotzeko. Foru frankoak ziren, burgesak: merkataritza bultzatzeko eman ohi zituen erregeak, horrela hiribilduak sortzeko edo indartzeko. Frankoak ziren, halaber, pribilegioak eskaintzen zituztelako, hiribildura biztanle ahalik eta gehien erakartzeko eginikoak⁴. Foru laburrak edo frankoak familiak biltzen ziren: euskal hiribilduek beste lurralde batzuetan indarrean zeudenak bere egin zituzten, izena aldatuta⁵. Alde batetik, Logroño-ko Foru Frankoa dago (Alfontso VI.ak Logroño-ko biztanleei emana, 1095. urtean), Bilbok eta Gasteizek hartutakoa. Bestetik, Lizarrako Foru Frankoa dago (Antso Ramirezek 1063an emandakoa), Donostiak bere egin zuena, 1180. urtean, Antso Jakitunaren eskutik. Gainerako euskal hiribildu guztiek testu horiek bereganatu zituzten, lurraldearen arabera, izena aldatuta.

Hiribilduek foru frankoei esker lortutako estatus pribilegiatuak erreakzioa eragin zuen, ordea, landa-lurrean edo Lur Lauan. Bi multzo horien arteko tentsio gero eta handiagoaren eta landa-lurreko biztanleek zuten desoreka sozio-juridikoaren eraginez, euren zuzenbidea idatziz jasotzeko grina sortu zitzaizen horiei ere. Horren adibide bikaina dira euskal lurraldeen ohiturazko zuzenbidea aurrenekoz idatziz jaso zuten foruak, Bizkaikoak, Arabakoak zein Nafarroakoak; Gipuzkoak ez zuten inoiz osatu berezko forurik. Bizkaia-ri dagokionez, lurraldearen

egiturari erreparatuz, honako foru hauek bereiz daitezke: Enkarterrietakoa (1394ko Avellanedako Foru Zaharra eta 1503ko Enkarterrietako Foru Berritua); Durangokoa (data zehatza ezezaguna da, baina Durangoko Merindadeko Forua XIV. mendekoa dela diote adituek⁶), eta Bizkaia 'nuklearra' deritzona (1452ko Bizkaiko Foru Zaharra). Bizkaiko hiru lurralde-eremuek euren ordenamendu juridikoa bateratu zuten 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren bidez (Enkarterriek 1574an bere egin zuten Foru Berria), Bizkaia osoko Lur Lauari geroztik aplikagarria izan zitzaion testu bakarra. Orozkoko bailarara 1785ean sartu zen, behin betiko, Bizkaiko lurralde-eremuan, baina ordu arte ere Bizkaiko Forua aplikatzen zitzaion, Bizkaiko Lur Laua bailitzan. Bizkaiko hiribilduak eta Urduñako hiri, ordea, foru haren eremutik kanpo geratu ziren, haietan indarrean egondako foru frankoek Gaztelako zuzenbidea absorbitu baitzuten, tresna juridiko gisa eskas gelditu zirenetik gaur arte.

Arabari dagokionez, 1373ko Aiarako Forua izan zen aiararren berezko ohiturazko zuzenbidea jaso zuen testu idatzia⁷; gainerako arabar guztiek Gaztelako zuzenbidea izan zuten ordenamendu juridiko nagusizat. Gipuzkoak ohiturazko zuzenbideari eutsi zion egunerokoan, idatzita egon ez arren, hiribilduetatik kanpoko Lur Lauari dagokionez; hiribilduetan, beste lurralde batzuetan bezala, Gaztelako zuzenbidea zen aplikagarria. Nafarren berezko zuzenbidea jaso zuen lege-testua 1237ko Foru Zaharra da, gerora Nafarroako Foru Orokorraren muina izango zena, 1330ean eta 1418an 'hobetua'⁸. Iparraldeko euskal lurraldeek euren ohiturazko zuzenbideak eratutako instituzioei eutsi zieten -ingelesez eta, aurrerago, frantsesez mende-, 1789an Frantziako Iraultzak ezabatu zituen arte. Lapurdin aipagarriak

3. Bi motatako foruen arteko ezberdintasunaz, ikus: LABAYRU Y GOICOECHEA, E.J. *Historia General del Señorío de Bizcaya*, II. liburukia. Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1968; 147. or.
4. Franko terminoaren azterketaz dihardute: LALINDE ABADÍA, J. "La foralidad de francos". *Actas de la Reunión Científica "El Fuero de Logroño y su época" (Logroño 26-28 abril 1995)*. Logroño, 1995; 26. eta 27. or.; LACARRA, J.M.; MARTÍN DUQUE, A.J. *Fueros de Navarra. Fueros derivados de Jaca*, I. liburukia, *Estella-San Sebastián*. Iruñea: Aranzadi, 1969; 17. or.
5. Euskal hiribilduek jasotako foru frankoen analisiari buruz, ikus: NAVAJAS LAPORTE, A. *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Donostia, 1975; 37. or.; SÁNCHEZ, G. *Curso de Historia del Derecho*. Valladolid: Estudios Universitarios, 1980; 66. eta 67. or.; PÉREZ-BUSTAMANTE, R. *Historia del Derecho Español. Las fuentes del Derecho*. Madril: Dykinson, 1994; 146. or.
6. XI. eta XII. mendeetan kokatzen dute Durangoko Forua honako egile hauek: VICENTE ZAVALA, S.J. "La Villa de Durango". *Temas vizcaínos*, XX. urtea, 235-236. zk., uztaila-abuztua. Bilbo, 1994; 14. eta 15. or.; ITURRIZA Y ZABALA, J.R. *Historia de Vizcaya: general de todo el Señorío y particular de cada una de las anteiglesias, villas, ciudad, concejos y valles, desde su fundación hasta 1885 (1897)*. urtera arte J.R. de Iturriza y Zabalak idatzia eta, gaur egun arte, Manuel de Azcárraga y Régilek zabaldua. Bilbo, 1885; 180. or.; LABAYRU Y GOICOECHEA, E.J. *Historia General del...*, cit.; 147. or. Forua XIV. mendean kokatzen dute, aldiz, beste hauek: ZAMÁCOLA, J.A. *Historia de las Naciones Vasca de una y otra parte del Pirineo Septentrional y cosas del mar Cantábrico desde los primeros pobladores hasta nuestros días*, III. liburukia. Auch, 1818; 113. or.; ARGUINZONIZ, A.M.: *Sinopsis histórica de la Villa de Durango y noticia biográfica de sus hombres más célebres*. Durango: Museo de Arte e Historia, 1989; 43. or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A.; ARIZAGA BOLUMBURU, B.; RÍOS RODRÍGUEZ, M.L.; DEL VAL VALDIVIESO, I. *Bizcaya en la Edad Media*, IV. liburukia. Donostia, 1985; 64. or.; Díez de Unzueta, I. "Comentario jurídico al Fuero Antigo de la Merindad de Durango". *Cuaderno de Historia Duranguesa*. Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Bilbo, 1983; 46. eta 47. or.
7. Aiarako Foruan aditua, URIARTE LEBARIO, L.M. *El Fuero de Ayala*. Madril: M.G. Hernández Semein Inprenta, 1912.
8. Ibilbide horri buruz: MAÑARICUA, A.E. *Vizcaya, siglos VIII a XI; los orígenes del Señorío*. Bilbo: Biblioteca de Historia del Pueblo Vasco, 1984; 77-84. or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, F.; MONTERO, M. *Historia de Vizcaya*, cit., 28. eta 29. or. Zehazki, Enkarterriari buruz, ikus: DE LA QUADRA SALCEDO, F. *El Fuero de las Encartaciones*. Bilbo, 1916. Ikus, orobat: LABAYRU Y GOICOECHEA, E.J. *Historia General de...*, cit., II. liburukia; 519-532. or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; MARTÍNEZ OCHOA, R.M.; RÍOS, M.L. *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Donostia: Txertoa, 1979; 14. eta 15. or.; ESCARZAGA, E. *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*, Bilbo, 1927, 27. eta hurrengo orrialdeak; eta ETXEBARRIA MIRONES, J. eta T. *Tradiciones y costumbres de las Encartaciones*. Bilbo, 1997; 270-274. or.

dira 1215eko Baionako Hiri Forua eta 1514ko bi bilduma –indarrean zeuden ohitura orokorre dagokienez, bata Lapurdirentzat eta bestea Baionarentzat (Lapurdiren eta Baionaren arteko bereizketa argi erakusten dute hainbat testuk)–. Zuberoari bagagozki, berriz, aipagarria da 1520ko Ohituren Bilduma; eta Behe Nafarroari dagokionez, azkenik, 1611ko Foru eta Ohituren Bilduma⁹.

Hala, Erdi Aroko panorama juridikoa argi marrazten duen mapa bat sortu zen berezko foruak onartu zirenean, batez ere Hego Euskal Herriko lurraldeetan: alde batetik, hiribilduak daude, foru frankoen bidez Gaztelako zuzenbidea jaso zutenak (1348ko Alcalako Ordenamenduaren eta Partiden eskutik)¹⁰. Bestetik, Lur Laua –Gipuzkoan eta, Aiara kenduta, Arabako lurralde ia osoan izan ezik–, berezko foruek arautua¹¹. Euskal instituzio publikoen eremuan, ordea, lurralde bakoitzeko Batzar Nagusietara ordezkari guztiak joaten ziren, bai hiribilduetakoak baita Lur Laukoak ere, gai komunez aritzeko. Batzar partikularrak ere egiten ziren, haiez gain, hiribilduen artean nahiz Lur Lauko ordezkarien artean, batzuei eta besteei zegozkien gaiez aritzeko¹².

Berezko foruez gainera, **ERMANDADEAK** ere baziren, hau da, leinuen arteko borrokek eragindako ondorioei aurre egiteko sortutako erakunde judizial kolektiboak. Euskal Herriko probintzia gehienetan sortu ziren ermandadeak, XIV. mendetik aurrera (Bizkaian, Gipuzkoan, Araban, Nafarroan eta Lapurdin), eta indar nabarmena izan zuten lurraldearen egiturari. Foruek aurreikusten zuten zigor-zuzenbidez bestelako zigor-araudi bat eratu zen *ad hoc* ermandadeek aplika zezaten. Delitu eta zigor berriak zehaztu zituzten, leinu-gerrek eragindako ondorioei aurre egiteko tresna eraginkor gisa.

Zigor-zuzenbide berezi hori ordenantzen bidez eratu zuten Batzar Nagusiek. Aipagarriak dira Bizkaian, oso ezagunak direlako, 1342ko Ordenantzak edo Koadernoak, Nuñez de Lararen eskutik onartutakoak, eta 1394koak, Gonzalo Mororen eskutik onartuak¹³. Borroken eragin gordinari aurre egiteko, Gaztelako Koroak ere esku hartu zuen, 1487ko Chinchillako Ordenantza hiribilduetan eta hirietan aplikatuz, ezohiko neurri gisa, leinuen aurkako neurri oso zorrotzak jasotzen baitzituen. Baina bizkaitarrek ez zuten testu hura begi onez hartu. Izan ere, borrokak eteteko neurriak biltzeaz gain, hiribilduen gaineko kontrola areagotzea zekarren, besteak beste, hiribilduak Batzar Nagusietatik aldentzea eta Lur Lauarekiko distantzia areagotzea¹⁴. Ordenantza zorrotz hark sortutako krisia konpontzeko, **1630eko KONKORDIA** aldarrikatu zen, zeinak hiribilduei baimentzen zien, prozedura jakin baten bidez, foruak bere egitea, Gaztelako zuzenbidea alde batera utzita¹⁵.

Euskal lurraldeen foru-erantzaren benetako dimentsioa, ordea, foruen arauak islatzen dutenaz harago iristen da. Egia da foruak diziplina anitz biltzen dituzten testuak direla: berezko zuzenbide zibilari, administrazio-zuzenbideari, zigor-zuzenbideari eta prozedura-zuzenbideari buruzko arauak jasotzen dituzte, euskaldunen ohiturazko zuzenbidea lege idatzi bihurtuz. Baina orain, guri dagokigunez, funtsezko datua honako hau da: **euskal lurraldeek berezko egitura politikoa eta judiziala izan zuten hainbat mendez**, nahiz eta batzuek Gaztelako Koroarekin egindako itun politikoaren ondoriozkoa zela esan, eta beste batzuek, berriz, aurretik indarrean egondako eta Gaztelako Koroaren inbasioari begira –eta Gaztelako monarkiaren zentralizazioaren mende– erregeek hala nahi izanda (edo komeni izan zitzaielako) euskaldunoi onartutako zenbait berezitasun edo

9. Ezinbesteko ikerketa da LARRAZABAL BASAÑEZ, S. *Derecho público de los territorios forales*. Oñati: IVAP, 2004; 15-26. or.
10. MARTÍN OSANTE, L.C. *El régimen económico matrimonial en el Derecho vizcaíno*. Madril: Marcial Pons, 1996; 157. or.; NAVAJAS LAPORTE, A. "Aproximación a la historia de la formación del Derecho territorial del País Vasco". *Saileko Koadernoak. Zuzenbidea*, 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1984; 17-32. or.; ALLENDE SALAZAR, A. "El dualismo en la legislación civil de Vizcaya". *RGLJ*, 54. 1879; 60. eta hurrengo orrialdeak.
11. Ezinbesteko ikerketa klasikoak dira LECANDA MENDIETA, M. *Memoria de las instituciones civiles de Vizcaya*. Liburutegi Judizialean Bizkaia-ri dagokion liburukian argitaratua. Madril, 1888. HORMAECHE, R. "Leyes civiles de Vizcaya". *Tipografía Católica de José de Astuy*. Bilbo, 1891; CHALBAUD Y ERRAZQUIN, L. *La troncalidad en el Fuero de Bizcaya*. Bilbo, 1898; JADO Y VENTADES, R. *Derecho civil de Vizcaya*. Bilbo, 1900 (2. edizioa, Bilbo, 1923); VICARIO DE LA PEÑA, N. *Derecho consuetudinario de Vizcaya*. Madril, 1901 (1995ean Bizkaiko Foru Aldundiak berrargitaratua); PLAZA Y SALAZAR, C. *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1902; BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS, G. *El Fuero de Vizcaya en lo civil*. Bilbo, 1903; ANGULO LAGUNA, D. *Derecho privado de Vizcaya*. Bilbo, 1903; eta SOLANO Y POLANCO, J. *Estudios jurídicos del Fuero de Bizcaya*. Bilbo: Casa de misericordia, 1918.
12. MONREAL ZIA, G. "Desarrollo histórico de las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia hasta 1841". In: ZENBAITEN ARTEAN. *Las Juntas Generales de Bizkaia*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1986; 36. eta hurrengo orrialdeak.
13. Ermandadeei buruz, ikus, besteak beste: GALÍNDEZ SUÁREZ, J. *La legislación penal de Vizcaya*. Bilbo, 1934; 57-85. or.
14. CELAYA IBARRA, A. "El Fuero de Vizcaya y Álava, adelantado de las modernas legislaciones". *La Gran Enciclopedia Vasca*, I. liburukia. Bilbo, 1966; 298. eta 299. or.
15. BASAS FERNÁNDEZ, M. "La importancia de las Villas en la estructura histórica del Señorío de Vizcaya". *Edad Media y Señoríos: El Señorío de Vizcaya*, Simposium celebrado los días 5, 6 y 7 de marzo de 1971. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1972; 116. or. Orobat, ARTECHE, A. "El Fuero de Vizcaya en el Infanzonado". *Euskalerrriaren alde*, 1912ko ekaina, 1974ko faksimile edizioa; 377. eta 378. or.

pribilegiotzat hartu¹⁶. Edozelan ere, eztabaida garrantzitsua izan arren, azpimarratzekoa da gure iragan politikoari eta judizialari buruz hainbat eta hainbat adituk ateratako ondorio sendo hau: **euskal lurraldeen foru-sistemak gobernu-sistema jakin batean du abiapuntua**. Banakoen eskubideak defendatzen dituen sistema da (herritarren arteko berdintasuna, kaparetasun unibertsalean oinarritua; oinarrizko eskubideen babesa, tortura, epailearen esku-hartzerik gabeko atxiloketak eta zorregatik kartzelaratzeari debekatzen eta etxebizitzaren bortxaezintasuna eta akusaziozko printzipioa aldarrikatzen baititu), berezko zuzenbide zibila daukana familiaren eta oinordetzaren eremuan; berezko instituzio publikoak dituen (auzo, eskualde eta herrialdeetan banatuak), baita berezko sistema militarra, berezko justizia-administrazioa, berezko ogasuna (zerga-salbespena) eta sistemaren berezko defentsa-tresnak ('foru-pasea') ere. Finean, XIII-XVIII. mendeen artean loratu eta trinkotutako sistema bat (Gaztelako Koroaren mende dauden beste lurraldeetan –Aragoi eta Katalunia– gertatu bezala), eta XIX. mendetik aurrera indarrez desagerrarazia¹⁷.

Foru-eraentzen abolizio-prozesua gogorra eta luzea izan zen. Felipe V.aren XVIII. mendeko Planta Dekretuen zentralizazio-saiakera abiapuntu hartuta, mota askotako ekimenak gauzatu ziren, XIX. mendean zehar, euskal lurraldeen foru-sistema ezabatzeko helburuak gidatuta. Manuel Godoy espainiar ministroak lehentasunezko erronkatzat zeukan euskal lurraldeen foru-sistema deuseztatzea, eta horretarako, borroka ideologiko anti-foralista zorrotza aurrera eraman zuen¹⁸. Ildo horretan, enkargu ofizialen babespean idatzitako hainbat obra historiko-juridiko plazaratu ziren, foru-sistema bera inoiz existitu ez den 'mito' hutsa bilakatu nahian. Egun, oraindik, doktrinaren parte batek diskurtso horri eusten

dio¹⁹. Edozelan ere, bestelakoak izan ziren foru-sistema desagerrarazi zuten ekimen politiko eta juridikoak²⁰: 1808ko Baionako Estatutua (96, 101, 116, 117 eta 144. artikulua); 1812ko Cadizko Konstituzioa, Espainiako 1837ko Konstituzioa, 1837ko irailaren 16ko Legea (Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak desegin zituen), 1839ko urriaren 25eko Legea (1. eta 2. artikulua; foru-aldundiak berrezarri zituen, baina sistema judiziala ezabatu; foru-pasea debekatu zuen, eta, besteak beste, banderaren onura galdu zuen Bilbok), 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretua (Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak desegin eta Probintzia Diputazioak indarrean jarri zituen; estatuaren sistema judiziala ezarri zen, justizia-administrazio foralaren orde; aduanak kostara eta mugetara eraman ziren; udalak estatuko sistemaren arabera antolatzen hasi ziren) eta Espainiako 1845eko Konstituzioa, neoforalismoa deritzonaren garaian²¹. Estatuaren eta euskal lurraldeen arteko tentsioa areagotuz joan zen, urtez urte (barealdi batzuk tartean, hala nola, 1871ko urtarrilaren 25eko Errege Dekretua eta, batez ere, Espainiako I. Errepublikaren garaian, Espainiako 1873ko Konstituzio Federalaren Proiektua²²) eta 'negoiazioa' ezinezkoa izanik, estatuaren zentralismoa garaile atera zen. Prozesuaren gailurra 1876ko uztailaren 21eko Legeak irudikatu zuen, Espainiako 1876ko konstituzio monarkikoaren babespean eta Cánovas del Castilloren eskutik emanak: **euskal lurraldeen foru-sistema abolitu zuten, eremu publikoari dagokionez**. Ordu arteko foru-instituzioak galdu egin ziren²³.

Euskaldunok foru-sistemaren defentsan hain sutsu jokatu izanak autogobernurako nahia argi islatzen duela ondorioztatu dute adituek. Are gehiago: CLAVERO irakaslearen hitzetan, foralismoak federalismoa ezkutatu du beti, federalismo estalia, estatuaren

16. PORTILLO VALDÉS, J.M. "Momento preconstituyente, debate constitucional: las Provincias exentas y la Monarquía Hispana en la crisis del Antiguo Régimen". *Materiales para el estudio de la Constitución de 1812*. Madrid: Tecnos eta Andaluziako Legebiltzarra, 1989; 647-658. or.; LLORENTE, J.A. *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas en que se procura investigar el estado civil antiguo de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya y el origen de sus fueros*, 5 liburuki. Madrid: Imprenta Real, 1806-1808; AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, J. "Ohizko foru sistema eta Hego Euskal Herriko liberalen portaera ideologikopolitikoak". *Jornadas sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*. Bilbo: UPV-EHU, 1986; 83-101. or.; AROSTEGUI SÁNCHEZ, J. "El carlismo y los Fueros vasconavarros", *Historia del pueblo vasco*, III. liburukia. Donostia, 1979; 71-135. or.; CELAYA IBARRA, A. "País Vasco, de los Fueros a los Estatutos". *Cuenta y Razón*, 86. 1994; 93-100. or.
17. CELAYA IBARRA, A. *Tradición y Modernidad. De los Fueros a los Estatutos*. Bilbo: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak Bizkaiko Batzordea, 1994; 18-19. or.
18. MONREAL ZÍA, G. "La crisis de las instituciones forales públicas vascas". *II Congreso Mundial Vasco. Congreso de Historia de Euskal Herria*, III. liburukia. Gasteiz: Eusko Jaurjaritza, 1988; 14. or.
19. CORCUERA ATIENZA, J. "La constitucionalización de los derechos históricos. Fueros y Autonomía". *Revista Española de Derecho Constitucional*, 11. 1984; 9-38. or.
20. Ekimenen laburpen bikaina agertzen da honako lan honetan: LARRAZABAL BASAÑEZ, S. *Contribución a una Teoría de los Derechos Históricos Vascos*. Bilbo: Eusko Jaurjaritza, 1997; 81. eta hurrengo orriak.
21. MONREAL ZIA, G. "La crisis de...". *cit.*; 23. or.
22. FERRANDO, J. *La primera República Española*. Madrid, 1973; LACOMBA, J.A. *La Primera República. El Trasfondo de una revolución fallida*. Madrid: Guadiana, 1973; LÓPEZ CORDÓN, M.L. *La revolución de 1868 y la Primera República*. Madrid, 1976; TRUJILLO, G. *El federalismo español (Ideología y fórmulas constitucionales)*. Madrid: Edicusa, 1967.
23. ANGULO Y DE LA HORMAZA, J.M. *La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*. Donostia: Auñamendi, 1976; GARCÍA ESCUDERO, J.M.^a. *Crítica de la Restauración liberal en España*. Madrid: Ateneo de Madrid, 1952; ÁLVAREZ CONDE, E. "La Constitución Española de 30 de junio de 1876: cuestiones previas". *Revista de Estudios Políticos*, 3. 1978; 79-99. or.; SÁNCHEZ AGESTA, L. *La Constitución de 1876 y el Estado de la Restauración*. Madrid, 1985; CLAVERO SALVADOR, B. *Fueros vascos. Historia en tiempos de Constitución*. Barcelona: Ariel, 1985.

konstituzionalismo bateratuaren aurrean²⁴. Gure historian zehar, errealtate eta aldarrikapen iraunkorra, alegia. Espainiako Berrezarkuntzaren garaian dagokionez, federalismo birtual horren adibidetzat hartu izan da, berez, 1878. urtetik aurrera martxan jarritako tresna juridiko berria: **kontzertu ekonomikoa edo ekonomia-ituna**. Estatuko gobernuaren eta Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Arabako aldundien arteko akordioa oinarri, kontzertua estatuaren eta hiru probintzien arteko harreman ekonomikoak zein administraziozkoak arautzeko sistema konstituzionala da, estatuko legebiltzarraren kontroletik kanpo geratzen dena eta hiru probintziek hari ordaindu beharreko kupoa muintzat duena. Aldundiek kudeatutako finantza-autonomia antolatzeke tresna juridikoa, eremu fiskalean, estatuaren eta probintzien arteko 'tratuen' eta 'negoziazioen' esparrua sortzen duena, eta adituen artean aldeko eta kontrako iritzirik argiak eragin dituen. Lehenengo kontzertu ekonomikoa 1878tik 1887ra arte egon zen indarrean; bigarrena, 1887tik 1894ra arte; hirugarrena, 1894tik 1906ra arte; eta laugarrena, 1906tik 1925era arte (Liga Foral Autonomistaren garaian, 1917an hiru aldundiek Espainiako erregeari bidalitako –eta gerora ahaztutako– mezuaren garaian, lehenengoz euskal lurraldeen **eskubide historikoak** esamoldea erabiltzen hasi zen garaian²⁵). Tartean, foru-sistema berreskuratzeko saiakerak egin ziren: 1917ko mezuaren ildotik, 1918ko azaroaren 3an euskal diputatu abertzaleek Espainiako Kongresuan aurkeztutako Lege Proiektua²⁶, esaterako.

Bosgarren kontzertu ekonomikoa Primo de Riveraren diktadurapean (1923-1930) onartu zuten. 1925etik 1937ra arte egon zen indarrean. Espainiako II. Errepublikaren garaian, itunari eutsi zitzaion, baina, 1936ko Espainiako Gerra Zibilaz geroztik, bi probintzia euskaldunek izandako jarrera antifrankista zela eta, 1937ko ekainaren 23ko Lege Dekretuaren bidez, sistema kontzertatua ezabatu zieten Bizkaia

eta Gipuzkoari. Kausa frankistaren aldeko jarrera izanagatik, kontrako bidea hartu zuten Araba eta Nafarroari dagokionez, eta eraentza bereziari eutsi ahal izan zioten. Egoera horretan heldu zen 1978ko abenduaren 6an onartutako **Espainiako Konstituzioa eta haren lehenengo xedapen gehigarria**. Araban ordu arte indarrean egondako kontzertua izan zen xedapen horren filosofiaren eredu, baita autonomia-erkidegoa osatzean eta 1979ko Euskadiko Autonomia Estatutuan oinarri hartutakoa ere (41. art.; zortzigarren xedapen iragankorra). Hala, 1981eko maiatzaren 13ko Legearen bidez onartu zen egun indarrean dagoen kontzertu ekonomikoa, Bizkaiari, Arabari eta Gipuzkoari dagokionez. Berau izan da, ordu arteko eta Espainiako Konstituzioaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean ezarritako sistemaren arteko zubia, zuzenbide publikoari bagazozko²⁷.

2.2. Euskal lurraldeen berezko sistema judizialaren ardatz nagusiak: foruak

Historian zehar gure lurraldeek berezko sistema judiziala izan dutela argi erakutsi dute hainbat eta hainbat ikerketek. Gaur egun, aldiz, berezko sistema judizialik ez dago. Hegoaldeko euskal lurraldeak Espainiako estatuaren organigrama judizialean txertatuta daude; Iparraldekoak, ostera, Frantziako estatukoan. Hegoaldeko euskal lurraldeek berezko sistema judizialari eutsi zioten 1876. urtera arte, zuzenbide publikoaren eremuan euskal foruak abolitu zituzten arte. Orditik Espainiako 1978ko Konstituzioa aldarrikatu arte, parentesi bakarra izan zuten lurraldeok autonomia instituzionalari dagokionez: Espainiako II. Errepublikak ahalbidetutakoa, eta ondorioz, euskal autonomia-estatutuetan jasotakoa. Iparraldeko lurraldeek, berriz, 1789ko Frantziako Iraultzaz

24. CLAVERO SALVADOR, B. "Fuero en tiempos de Constitución: una suerte de federalismo". *Jornadas sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*. Bilbo: UPV-EHU, 1986; 237-251. or.
25. FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T. R.: "Los derechos históricos de Navarra". In: ZENBAITEN ARTEAN. *Diez años del Amejoramientos del Fuero (1982-1992)*. *El Estado de las Autonomías y Navarra*. Iruña: Nafarroako Legebiltzarra, 1994; 47-48. or.; HERRERO DE MIÑÓN, M. *Idea de los Derechos Históricos*. Madrid: Espasa-Calpe, 1991; 56-60. or.; LARRONDE, J.C. *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. Donostia: Txertoa, 1977; CORCUERA ATIENZA, J. *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*. Madrid: Siglo XXI argitaletxea, 1979; SOLOZABAL ECHEVERRÍA, J.J. *El primer nacionalismo vasco*. Madrid: Túcar argitaletxea, 1975; ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. "Inter-nos. ¿Qué derechos históricos?". *Deia*, 1985eko uztailaren 23a.
26. ALONSO OLEA, E. *El Concierto Económico (1878-1937)*. *Orígenes y Formación de un Derecho Histórico*. Oñati: IVAP, 1995; CASTELLS, J.M. "El Derecho público vasco desde 1876 hasta el Estatuto de Gernika. Conciertos Económicos y Autonomía". *Euskal Herria*. Donostia: Caja Laboral Popular, 1985; BELDARRAIN GARÍN, M. "El Concierto Económico como confrontación de un sistema de financiación autónoma". *RVAP*, 15. 1986; 27-49. or.; PÉREZ ARRAIZ, J. *El Concierto Económico: evolución, caracteres y fundamento de la financiación vasca*. Oñati: IVAP, 1994.
27. GARCÍA PELAYO, M. "El proyecto constitucional y los derechos históricos". *El País*. 1978ko irailaren 24a; 12-13. or.; LUCAS VERDÚ, P. "Historicismo y positivismo ante la conceptualización de los derechos históricos vascos". *Jornadas de estudio sobre la actualización de los derechos históricos vascos*. Bilbo: UPV-EHU, 1986; 274-275. or. Autore honen beste obra batzuk interesgarriak suerta daitezke, hala nola: "Consideraciones político-constitucionales sobre el Parlamento vasco y las Juntas Generales tras la Constitución", *Jornadas sobre Cortes, Juntas y Parlamentos del Pueblo Vasco*. *Zuzenbide-Koademoa*, 6. Eusko Ikaskuntza, 1986; "Una contribución capital para 'aprehender' el significado de la Disposición Adicional Primera de la Constitución". *Revista de Estudios Políticos*, 75. 1992; "Los Derechos Históricos como Constitución sustancial del Pueblo Vasco". *II Congreso Mundial Vasco. Congreso sobre los derechos históricos vascos*. Oñati: IVAP, 1988.

geroztik ez dute berriz ere berezko sistema judizialik izan.

Aurreko atalean irudikatu dugun ibilbide historikoaren zenbait uneri argazkia ateratzea dagokigu orain. Ikusi dugunez, Hegoaldeko euskal lurraldeek berezko gobernu-sistema ia osoa eduki zuten 1876. urtera arte (eta Iparraldekoek, lausoagoa bada ere, 1789ko Frantziako Iraultzara arte). Data hura da, beraz, *foruen abolizioaren* adierazlea; hots, Hegoaldeko euskal lurraldeen berezko zuzenbide publikoaren desagertzearen isla historiko-juridikoa. Ordu arte, euskal lurraldeek, foru-eraentza diziplina-aniztunaren baitan, izan zuten berezko sistema judizial bat²⁸, foruek ere argi jasotzen duten moduan²⁹.

2.2.1. Bizkaia

Bizkaiko Jaurerrian, berezko justizia-administrazio foralak funtsezko garrantzia izan zuen, Bizkaiko foru-sistemaren ardatz diren hainbat elementu bermatzen baitzituen: kaparetasunaren babesa, norbanakoen eskubide eta bermeei eusteko bidea, eta Bizkaiko berezko zuzenbidea aplikatzekoa, besteak beste. Hauek dira Bizkaiko sistema judizialaren oinarriko ezaugarriak:

- Epailen eta tribunalen sistema ez zen berdina Bizkaiko eskualde edo lurralde-eremu guztietan: Durango, Bizkaia 'nuklearra', Enkarterriak eta Hiribilduak bereizten ziren. Horretan ere, nabarmena zen, beraz, pluraltasuna eta barne-zatiketa.
- Auzi berak ezagutzeko eskumena zuten hainbat instantzia judizial zeuden. Hori zela eta, sistema oso konplexua zen, oso ugariak baitziren tribunal eta instantzien arteko eskumen-gatazkak, batez ere bigarren auzialdian.

- Oso arrunta zen, eskema horretan, helegite ugari aurkeztea instantzia bat baino gehiagotan. Horregatik, prozesuak asko luzatzen ziren. Hori zuzentzeko, askotan mugatu egiten zen instantzien kopurua.
- Batez ere Durangon eta Enkarterrietan³⁰, etengabeak ziren 'etxeokoe' lehenengo udal-instantziari eustearren korrejidoreen esku-sartzeen kontra egindako borrokak. Tirabira horien oinarria argia zen: bizkaitarrek euren auziak bertako epaile eta tribunalek ezagutzea nahi zuten, eta ez epaile edo tribunal arrotzek. Alde batetik, etxeokoe beti ezagutzen zutelako askoz ere hobeto bertako zuzenbidea, antzinako ohituretatik eratorria. Bestalde, prozesu edo auzi bat kanpoan izateak gastuak zekarzkielako bizkaitarrei: etxetik aldentzea, eta beraz, bertakoez zuzenean ezin arduratu izatea. Ideia hori Bizkaiko 1526ko Foru Berriak berak jasotzen zuen (VII. titulua; I. legea).
- Bizkaiak, halaber, epailen, tribunalen eta euren laguntzaileen jardura kontrolatzeko sistema bat ezarri zuen, baita horiek euren ekimenengatik zuten erantzukizuna ere (Foru Berria, IV. titulua, I. eta II. legeak).
- Azpimarratu beharra dago, bestalde, Bizkaian, leinu-gerren garaian, ermandade-alkateak zeudela baina, borrokak amaitu bezain laster, desagertu egin zirela (XV. mendean), Ermandadeak ez baitzuen loturarik izan jaurerriarekin. Horregatik, Foru Berriak ez zuen organo judizial gisa jasotzen, garai batean funtzio hori bete bazuen ere.

28. Berezko sistema judizialari buruz interesgarriak dira honako bibliografia-erreferentzia hauek: ALONSO, M.P. "El proceso penal en el Fuero de San Sebastián". *El Fuero de San Sebastián y su época*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982; 397. eta hurrengo orrialdeak; AREITIO Y MENDIOLEA, D. "Apuntes sobre el derecho foral de procedimiento". *Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya*, III-C 1. 1911; 51. eta hurrengo orrialdeak; ASENJO ESPINOLA, M. *Funcionamiento y organización de la Real Chancillería de Valladolid. Sala de los Hijosdalgo. Catálogo de todos sus pleitos, expedientes y probanzas*. Valladolid, 1920-1922; BAZÁN, I. "La territorialización de la justicia en el País Vasco en la Baja Edad Media". *Temas medievales* (Buenos Aires-Argentina), 5. 1995; 101. eta hurrengo orrialdeak; GALLO MEZO, J. "Derecho procesal en el Fuero Viejo de Vizcaya de 1452". *Estudios Vizcaínos*, III, 6. zk. 1972; 391. eta hurrengo orrialdeak; GÓMEZ RIVERO, R. "Breve síntesis histórica de la administración de justicia en los Territorios Históricos Vascos y en el Reino de Navarra". *Revista Vasca de Derecho Procesal*, I-1. 1987; 25. eta hurrengo orrialdeak; MARTÍN RODRÍGUEZ, J. "La figura histórico-jurídica del Juez Mayor de Vizcaya". *Anuario de Historia del Derecho Español*, XXXVIII. 1968; 641. eta hurrengo orrialdeak; MONASTERIO ASPIRI, I. "Los Tribunales de Bizkaia en el antiguo régimen a la luz de los textos legales y de los procesos civiles". In: ECHANO BASALDUA, J.I. (Koord.) *Estudios Jurídicos en memoria de José María Lidón*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea, 2002; 1.151. eta hurrengo orrialdeak; RODRÍGUEZ BESNÉ, J.R. "Observaciones sobre la administración de justicia local en Guipúzcoa durante el Antiguo Régimen". In: ZENBAITEN ARTEAN.: *Estudios dedicados al Prof. L. M. Díez de Salazar*, I. Bilbo: UPV-EHU, 1992; 517. eta hurrengo orrialdeak; ORTEGA GALINDO, J. "Importancia del Corregidor en la historia del Señorío de Vizcaya". *Estudios de Deusto*, XIV. 1966; 93. eta hurrengo orrialdeak; SALINAS QUIJADA, F. "La Administración de Justicia en el Reino de Navarra". *El Tribunal Superior de Justicia de Navarra*, Separata. Iruñea: Eusko Ikaskuntza, Abokatuen Bazkuna, 1989.

29. Azterketa honen oinarri sendoena, LARRAZABAL BASAÑEZ, S. *Derecho Público de...*, cit.; 197. eta hurrengo orrialdeak.

30. ESCARZAGA, E. *Avellaneda y la...* cit.; 103-108. or.



- Azkenik, ezaugarri orokor gisa ezinbestean aipatu beharra dago bizkaitarrek gorenko instantzia judizialean zuten 'babes' berezia. Espainiako estatuko tribunalen historian zehar, Valladolideko Kantzelaritzan bizkaitarrek izandako *sala bereziarena* mota horretako kasu bakarra izan zen. Sala horren arduradun zen epaile nagusiak aditua izan behar zuen Bizkaiko zuzenbidean, eta kasu horiek soilik aztertzen zituen bere salan (Foru Berria, XXIX. titulua, III. eta X. legeak). Epaile hori, halaber, bizkaitarrei Bizkaitik kanpo sortzen zitzaizkien prozedura zibilak eta penalak ezagutzeko eskumenduna zen, betiere bizkaitarrek euren kaparetasuna frogatzen bazuten. Eta froga hori izapidetzearen arduraduna ere, Epaile Nagusia zen (FB, I. titulua, XIX. legea).

ITURRIZAK dioenez, hauek izan ziren Bizkaiko lehenengo epaileak, IX. mendetik aurrera eta XV. mende arte: **PRESTAMERO NAGUSIA** eta Gernikako Kongresu Orokorak aukeratutako **BOST MERINO**, Bizkaiko bost merindadeetan justizia administratzeko hautatuak. Prestameroak arlo zibilean eta penalean eskuduntzak zituen, eta jaurerri osoan zeukan jurisdikzioa. Merinoak epaiak exekutatzeko arduratzen ziren. Bizkaiko 1526ko Foru Berriak, aurreko sistema horretatik abiatuta, honako hau marraztu zuen bere arauetan, betiere epaileak eta euren laguntzaileak argi berezita:

Epaileak

- **Burdinolen alkateak:** Burdinolen artean sortutako auziak ezagutzeko eskumena zuten, baita burdinolen jabeen eta euren langileen artekoak ebazteko ere. Foru Berriak (II. titulua, V. legea) euren eskumena burdinolen barruan gertatutako auzietara mugatzen zuen, eta horietatik, kanpo gertatutakoei dagokienez, kantitate jakin bat gainditu artekoetara. Alkate edo epaile horiek burdinolen jabeek aukeratzen zituzten, eta euren jurisdikzioa izendapenean zehaztutako bailara mugatzen zen; urtebeterako kargualdia zen.
- **Bertako alkateak:** Epaile hauek eskuduntza mugatua zuten, auziaren objektuaren balioaren arabera. Foru Berriaren arabera, Arratian, Uriben eta Zornotzan zein beste elizate eta merindade batzuetan existitzen ziren (II. titulua, IV. legea).

- **Enkarterrietako udalbatzetako alkateak:** Kausa zibilak eta penalak ezagutzen zituzten, lehenengo auzialdian, Enkarterrietako udalbatza batzuetan (Gueñes, Zalla, Gordexola) eta zibilak bakarrik beste batzuetan (Sopuerta, Karrantza, Galdames eta Turtzioz). Apelazioa korrejidorearen aurrean egiten zuten Enkarterrietako biztanleek, eta azken auzialdia Valladolideko Kantzelaritzako Bizkaia Salari zegokion.

- **Hiribilduetako alkateak eta Urduñako Hiriko alkatea:** Lehenengo auzialdian kasu zibilak eta penalak ezagutzeko eskumena zuten. Euren eskumenak hiri-gutun edo foru frankoetatik eratortzen ziren, errege edo jauntxoek emanak. Eskumena eksklusiboa zen, eta epaile arrotzak baztertzen zituen. Apelazioak korrejidorearen aurrean egiten zituzten bertakoek, eta azken instantzia Valladolideko Kantzelaritzako Bizkaia Sala zen.

- **Foru-alkateak:** Bizkaiko Lur Luan kausa zibilak ezagutzeko eskumena zuten epaileak ziren, eta euren funtzioa berezko zuzenbidea zaintzea eta mantentzea zen, ohitura zaharrak interpretatuz eta aplikatuz. Bizkaiko Jaunak izendatzen zituen eta BOST ziren, 1526ko Foru Berriko II. tituluko III. legearen arabera: hiru, Busturia eta Zornotzako merindadeetan, eta bi, Uribekoa, Arratian eta Bedian. Euren jurisdikzioan bakarrik zuten eskumena, eta bertakoak izatea galdatzen zitzaaien, gainera. Bertakoekin lotura izatea eta bertan bizitzea. Apelazioa korrejidorearen aurrean edo haren teniente orokorraren aurrean egiten zuten bertako biztanleek.

- **Korrejidorearen tenienteak:** Tenienteak korrejidorearen ordezkariak ziren Bizkaiko Jaurerria osatzen zuten lurralde-eremu guztietan: Durango, Enkarterriak eta Bizkaia 'nuklearra'. Korrejidoreak izendatzen zituen eta izendapena Errege Kontseiluak edo Erregeak berak ikuskatzen zuen. Letraduak ziren eta lehenengo auzialdian (beste alkate batzuekin batera) zein bigarrean zituzten eskumenak. Batez ere, azken horretan. Hiru ziren, eta euretatik garrantzitsuena teniente orokorra zen, Gernikakoa, Bizkaiko eta Durangoko Lur Lau osoan jurisdikzioa zuena (FB, II. tituluko II. legea). Korrejidorea ordezkatzeko hura ez zegoenean, elizateei bisita egiten zien, eta Valladolideko Kantzelaritzako kidea zen.

- **Korrejidorea:** Bizkaiko foru-eraentzan ezinbesteko figura zen korrejidorearena. Erregearen ordezkaria zen jaurerrian: hark izendatzen zuen eta ordaintzen zion, eta letradura izan behar zuen (FB, II. titulua, I. eta X. legeak); zalduna edo kaparea eta odol garbikoa, jaurerriak kanpokoak (FB II. titulua, II. legea). Kausa penaletan zein zibiletan zuen eskumena Bizkaiko Lur Lau osoan. Orokorrean, konfiantzako politikari, militar, Valladolideko Kantzelaritzako letradu, diplomatiko, Bizkaiko epaile nagusi edo presidente izandakoen artean aukeratzen zen. Batez ere, apelazioetan aritzen zen.
- **Bizkaiko diputatu nagusiak:** Funtzio politikoez gain, korrejidoreak emandako sententzien apelazioa ezagutzeko eskumena zuten Bizkaiko bi diputatu nagusiek, beste lurraldeetan ez bezala.
- **Bizkaiko epaile nagusia:** Valladolideko Kantzelaritzako Bizkaia Salako arduraduna zen, autore batzuen iritziz, jatorrian, Bermeoko epailea izandakoa. Azken auzialdia ezagutzen zuen jaurerrian emandako sententzia guztiekiko, kausa zibiletan, penaletan eta kaparetasunari buruzkoetan. XIX. mende arte iraun zuen kargu honek. Erregeak izendatzen zuen eta hil arteko kargua zen, oro har.

Laguntzaileak

- **Prebosteak:** Hiribilduetako funtzionario judizialak ziren, Bizkaiko jauntxoek izendatutakoak eta bertako sententziak exekutatzeko funtzioak zituztenak. Gaizkileak atxilotzeko eta kartzelatzeke funtzioa ere betetzen zuten.
- **Prestameroak:** Korrejidoreak ordezkatu zuen arte, jaurerriko maila goreneko funtzionarioa zen. Foru Berriaz gerostik, erregeak jaurerrian zituen hainbat eskubide galdatzeko, kobratzeko eta jasotzeko funtzioa betetzen zuen, exekuzioa barne. Bi laguntzaile izendatzeko ahalmena zuen, bata Durangoko merindadearen eremurako eta bestea Bizkaia nuklearrerako.
- **Merinoak:** Bizkaia nuklearra merindadeetan banatzen zen, eta merindade bakoitzak merino bat zuen (Uribekoak, bi). Foru Berriak ZAZPI

merindade aipatzen ditu: Busturia, Uribe, Arratia, Bedia, Zornotza eta Durango, eta, 1785. urtean gehitutakoa, Orozko.

2.2.2. Gipuzkoa

Gipuzkoan, XV. menderako finkatuta zegoen foru-egitura judiziala³¹. Análisis laburtzearen, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

Udaleko Justizia Administrazioa

- **Epaile arbitroak:** Ekitatez arazoak konpontzen zituzten arbitroak ziren, ez epaileak. Auziko alderdiek aukeratzen zituzten euren kasua ebazteko, bide judiziala ekiditearren. Erdi Aroan eta Aro Modernoan garrantzi handia izan zuten. Epaile ‘ofizialekin’ batera, arazoak ebazteko euskarri juridikoa osatzen zuten, eta batez ere arlo zibilean betetzen zuten euren jardura.
- **Ohiko alkateak:** Gipuzkoako hiribilduetan lehenengo auzialdiaz arduratzen ziren, arlo zibilean zein penalean, korrejidorearekin batera. Udalerriko zenbait auzokoren artean aukeratzen zituzten; hautagaiek “millarista” izan behar zuten, hau da, funts-ondasunen kopuru jakin bat izan behar zuten, eta idazten eta irakurtzen jakin behar zuten. Epaimahai batek eta prebosteek laguntzen zieten alkate horiei. XVI. mendetik aurrera, Batzar Nagusiei eskaera ugari egiten zitzaizkien, korrejidoreek alkate horien lehenengo auzialdiko eskumena errespetatu zezaten.
- **Auzo-alkateak:** Hiribilduekiko mendekotasuna zuten herri edo auzoetako alkateak ziren. Auzo horietan aukeratzen zituzten eta zegokien ohiko alkateak izendatzen zituzten. Euren jardura ohiko alkateek eskuordetutako eskumen batzuk exekutatzean zetzan, zuzenbide zibilaren eremuan eta kantitate txikiko auziei zegokienez. Auzo eta herriak hiribildu bilakatu ahala, desagertu egin ziren alkate hauek.
- **Alkate nagusiak eta alkate nagusien tenienteak:** Hiribilduetan funtzio judiziala ohiko alkateen esku zegoen, eta Gipuzkoan, alkate nagusiek Alkatetza

31. Gipuzkoako foru-sistema judizialari dagokionez, ikus: AYERBE IRIBAR, M.R. “La administración de justicia en los territorios vascos”. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, LVI-1. 2000; 5-51. or.

Nagusietan betetzen zituzten funtziook. Udalerrriak ziren, alkatetza nagusiak, hainbat 'unibertsitatek' osatuak, Batzar Nagusietan ordezkariak bakarrik eta bateratua zutenak (Azeria, Sayaz eta Aiztondo, adibidez). Erregeak izendatzen zituen, eta, oro har, udalerritik kanpo bizi zirenez, tenienteak izendatzen zituzten euren izenean jarduteko.

Ermandadeko alkateak

Zigor-arloan jarduteko eta gaizkileak atxilotzeko sortu ziren ermandadeak lurralde askotan. Foruetan jasotako zigor-arloko arauak indartzeko eta exekutatzeko organo judizial kolektibo gisa, alegia. Alkate haiek epaileak ziren, beraz, ermandadearen eskumenerako kasuak ebazteko izendatuak: indarkeria, erailketa, lapurreta, sutea eta Elizetan lapurtzea. Lurralde eremuari bagagozkio, barrutitan banatuta zeuden. Barruti bakoitzak ermandadeko alkate bat zeukan, ermandadearen jurisdikzioa aplikatzeko. Euren izapidetzen zuten prozedura oso laburra zen, eta haien epaiak oso zorrotzak eta eraginkorrak. Batzar Nagusiek gertutik jarraitzen zituzten ermandadeko alkateek emandako epaiak, eta batzuetan, zuzendu ere egiten zituzten. Apelazioan, ermandadeko alkateek emandako epaiak erregeak bakarrik ezagutzen zituen, edo hark izendatutako batzordeak. XVII. mendean desagertu ziren, beharrezko izateari utzi baitzioten.

Jurisdikzio bereziak

Garrantzitsuenak hauexek dira:

- **Burdinolen alkateak:** Urtero burdinolen jabeek euren artean izendatutakoak ziren, inolako forma jakinik gabeko prozedurari jarraituz euren arteko gatazkak konpontzeko. Gatazkak, oro har, zibilak ziren. Pixkanaka, figura hura ahultzen joan zen, burdinoletako jabeek eta langileek nahiago baitzuten korrejidorearen tribunalera jotzea euren liskarrak ebazteko. Korrejidoreak hartu zuen, beraz, alkateon tokia.
- **Saka-alkatea:** Gipuzkoak zeuzkan jurisdikzio berezietatik garrantzitsuenak hau da. XV. mendean agertu zen figura hau, erregearen errentak defendatzeko xedez sortua: atzerrira zenbait ondasun ateratzea eta bertatik beste batzuk sartzea debekatzen zuen. Urtebeteko kargualdia zegokion eta Batzar Nagusiek izendatzen zuten. Laguntzaileak zituen, eta mugetan egoten zen, ondasunon inportazioak eta

esportazioak kontrolatzeko, baita, nolabait, kontrabandoa ikuskatzeko ere. Azkenean Irunen jarri zuen egoitza, eta kartzela propioa ere izan zuen han, baita letradu baten aholkularitza ere. Haren epaiak Gaztelako Kontseiluaren aurrean bakarrik apela zitezkeen, eta kargualdia bukatzean, Batzar Nagusien aurrean kontuak eman behar zituen.

- **Indietatik Heldutakoaren epailea:** Donostian zuen egoitza, eta Indietatik etorritako itsasontzien kontrola zeraman. Haren epaiak Indietako Kontseiluaren aurrean bakarrik apela zitezkeen. Haren funtzioa beste epaile batek bete zuen XVIII. mendean amaieratik aurrera: Donostiako itsas-komisarioak. Saka-alkatearen funtzioak errespetatu behar zituen, baina lur- eta itsaso-kontrabandoz aritzeko epailearen funtzioak hartu zituen.
- **Errege Armen komandantea edo kapitain nagusia:** Bizkaian eta Araban ez zen existitzen figura hau, baina Gipuzkoan garrantzitsua zen. Hondarribian eta Donostian zuen egoitza. Jurisdikzio militarra zeukan. Eskumen-liskar handiak izaten zituen ohiko epaileekin, eta 1544ko Konkordiaz geroztik, haren esku geratu zen militarren arteko auziak konpontzeko ardura. Aldiz, militarrek zibilekin zituzten liskarrak ebazteko, eskumena mistoa zen, ohiko epaileekin batera gauzatzen zuen; kasu horietan, beraz, elkarrekin jardun behar zuten.

Probintziako Justizia Administrazioa

Probintzia osoan jurisdikzioa zuten kargu judizial garrantzitsuenak korrejidorea eta Batzar Nagusiak ziren. Bizkaian ez bezala, funtzio judizialak zituzten Gipuzkoan:

- **Korrejidorea:** Jakina da korrejidorea erregearen ordezkaria zela probintzian; funtzio politiko, militar eta judizial garrantzitsuak zituen bere esku, beraz. Lehenengo auzialdiko eskumena zuen, alkateekin batera, kasu zibilak eta penalak ebazteko, nahiz eta haren funtzio ezagunena ohiko alkateek emandako epaien apelazioa ebaztea izan. Korrejidorearen epaiak Valladolideko Kantzelaritzaren aurrean errekurri zitezkeen. Korrejidorearen tribunal ibiltaria zen, Gipuzkoako lau hiribilduetan izaten zuen egoitza, txandaka: Donostia, Azpeitia, Azkoitia eta Tolosa. Hiribildu bakoitzean tribunalak bere karguan ematen zuten denboran ere aldatetakoak izan ziren,

garaiaren arabera: hiru hilabete ziren hasieran, gero sei, urtebete, eta azkenik, hiru urte.

- **Gipuzkoako Batzar Nagusiak:** Eskumen judizialak zituzten: a) ermandadeko alkateen jarduera eta epaiak ikuskatzea edo eta zuzentzea; b) zenbait auzi ezagutzea, batez ere herri, auzo, unibertsitate eta auzo-batzen artekoak, edo pertsona asko tartean biltzen zituztenak; c) Gipuzkoatik kanpo gipuzkoarren kontra egindako delituak ezagutzea; d) sorginkeria; e) kargu publikoen kontrako delituak; f) eskriturak faltsutzea. Kasu guzti hauetan eskumen eskusiboa zuten, eta haien epaiak Gaztelako erregearen edo eta haren kontseiluko kideen aurrean soilik errekurri zitekeen.

2.2.3. Araba

Ibilbide kronologikoa abiapuntu hartuta, Arabak hainbat mendez izan zuen sistema judiziala laburbiltzen saiatuko gara atal honetan, kontuan izanik, beste lurraldeek baino lehenago galdu zituela berezko ezaugarriak, Gaztelako Justizia Administrazioa ia lurralde osoan gailendu baitzen. Azter ditzagun, laburki, ezaugarriok:

- **Arriagako Kofradia:** Erdi Aroan, 1332. urtera arte, Gaztelako erregearen jurisdikzioarekin batera Arriagako Kofradiarena egon zen indarrean, bakoitza bere lurralde-eremuan. Arriagako Kofradiaren jurisdikzio-eremuan erregearenak ez zuen eskumenik; funtzio judiziala kofradiako jaunak betetzen zuen, zuzenean edo ordezkari bidez (prestameraoa, Arabako alkateak edo epaile unibertsalak), kasu zibilak zein penalak ezagutzeari zegokionez. Bertako zuzenbidea aplikatzen zuten, eta apelazioa Justizia Nagusiaren aurrean egiten zen, euretariko bat baitzen kargu hori zeukana. Kofradia 1332. urtean desagertu zen, *borondatez utzita bere burua* Gaztelako Koroaren esku. Geroztik, Gaztelako sistema judiziala aplikatu zen ia Araba osoan, Aiarako lurraldean izan ezik, berezko forua baitzuen. Hala ere, borondatezko uzte horretan, arabarrek argi eta garbi galdatu zuten, Gaztelako sistema indarrean jarri arren, euren kasuak epaituko zituzten epaileek bertakoak izan behar zutelak.

- **Ermandadea:** Araban ezinbestean aipatu behar da ermandadea. Zigor-arloan ziharduen, batez ere, jakina denez. Arabako lurraldean garrantzi handia zuen. Ermandadeetan ermandadeko alkateak zeuden, ermandadearen jurisdikzioan funtzio judiziala zutenak. Prokuradoreak eta komisarioak ere baziren, alkate horiek izendatzeko, euren jarduera ikuskatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, emandako epaiak zuzentzeko. Batzar Nagusiek ere funtzio hori egikaritzen zuten, ermandadeari zegokionez. Herri bakoitzak ermandadeko alkate bat zuen, eta denak zeuden Arabako Ermandadearen barruan. Ermandadeen epaiak diputatu nagusiaren aurrean errekurritzen ziren.

- **Ohiko alkateak:** Beren lurralde-eremuan lehenengo auzialdiaz arduratzen ziren: auzokoek aukeratzen zituzten, jaurerrietan izan ezik, jaunak izendatzen baitzituen zuzenean edo, auzokoek, jaunak berretsita. Aro Modernoan, aholkulariek lagunduta ematen zituzten epaiak.

- **Alkate nagusiak, justizia nagusiak edo gobernadoreak:** Arabako jaurerrietan jarduten zuten, eta jaunak izendatzen zituen jaurerri osoan aritzeko. Jauna ordezkatzeko zuten, eta astero audientzia publikoan betetzen zuten euren funtzio judiziala, lehenengo auzialdian zein apelazioan. Euren epaiak Valladolideko Kantzelaritzan errekurritu behar ziren.

- **Diputatu nagusia:** Araban ez zen korrejidorerik; beraz, diputatu nagusiari zegokion hark beste lurraldeetan betetzen zituen funtzioak. Ermandadeko autoritate gorena zen: ermandadeko alkateen jarduera ikuskatzen zuen, eta euren epaien apelazioa ezagutzen. Formazio handiko pertsona zen, bere epaiak apelatu arren exekutatzeko zituen, eta denborarekin, lehenengo auzialdia ere bere esku hartu zuena. Pribilegio gisa, haren epaiak erregearen edo haren kontseiluaren aurrean soilik errekurri zitezkeen, ez Valladolideko Kantzelaritzan.

2.2.4. Nafarroa

Atal honetan, Nafarroako berezko sistema judizialaz jardungo dugu, eta, SALINAS QUIJADAREN analisia abiapuntu hartuta³², bi aro bereziko ditugu:

32. SALINAS QUIJADA, F. "La administración de...". *cit.*; 23-27. or.

1) **Goi Erdi Aroa:** Elizaren jurisdikzioa eta jurisdikzio feudala alde batera utziz, errege-kuria zen funtsezko instituzio judiziala. Erregeak ezagutzen zituen auziak, kuriaren laguntzaz, beste instantziek konpondu eziniko kasuetan (nobleen arteko liskarrak, eliztarren artekoak eta mistoak, batez ere). Errege-kuria izan zen aurrerago sortutako tribunalaren sistemaren ernamuina. Kuriarekin batera, Batzar edo Asanblada Judiziala ere aipatu behar da, justizia-administrazioaren sistema osoaren abiapuntua, alegia. Hasieran, herritarrek osatzen zuten; gero, erregeak edo jaunak izendatutako epaileek. Aldeen alegazioak, frogak eta ebazpena emateaz arduratzen zen.

2) **Behe Erdi Aroa eta Aro Modernoa:** Mailakatuago zegoen sistema judiziala. Ikus dezagun.

- **Ohiko alkateak:** Udalerrietako epaileak ziren, lehenengo auzialdiaren ardura zutenak, garrantzi gutxiko kasu zibil eta penaletan. Erregeak izendatzen zituen, baina udalerrri batzuek euren epailea izendatzeko pribilegioa zeukaten. Alkate edo epaile horiek astean hirutan egin behar zuten audientzia publikoa, eta epaiak erregeak onartu behar zituen. Ohiko alkateen gainetik, alkate nagusiak zeuden (jaurerrietan zuten jurisdikzioa eta jaunak izendatzen zituen), hiribilduetako arduradunak ziren, eta inguruko herri eta auzo askoren gaineko jurisdikzioa zuten, kasu zibilak eta penalak ezagutzeko.
- **Errege Gortea edo Gorte Nagusia:** XIV. mendean sortutako tribunalak. Lau alkatek edo epailek osatzen zuten: batek erregea ordezkatzeko; besteak eliza; besteak noblezia; eta azkenekoak, hiribilduak. Bi salatan antolatzen zen. Lau notario, prokuradore fiskala eta justizia-exekutatuak ziharduten haietan lanean. Ohiko alkateen eskumena gainditzeko zuten kasuak ezagutzen zituen lehenengo auzialdian, baita horiek emandako epaien apelazioa ere. Nafarroa Gaztelaren esku jausi zenean, ia berdin jarraitu zuen gorte edo tribunal horrek, aldaketa larregirik gabe. Gorteak emandako epaiak Errege Kontseiluaren aurrean errekurri zitezkeen.
- **Nafarroako Errege Kontseilua:** Funtzio politiko garrantzitsuak betetzeaz gain, 1450eko Erriberriko Gorteez geroztik,

Nafarroako Auzitegi Gorenaren funtzioak eskuratu zituen, hots, kasu zibil eta penal guztien azken auzialdia, alegia. Kontseilua honako kide hauek osatua zen: arduraduna, sei epaile eta erregeak aukeratutako lau alkate. Arduraduna eta bi epaile erregeak izendatzen zituen, eta ez ziren Nafarrak. Kontseiluak zenbait sala zituen, eta osokoa nahiz batzorde murriztua.

2.2.5. Lapurdi

Erdi Aroan, Lapurdin, sistema judiziala Bailearen Tribunalak ezaugarritzen zuen, bailea buru zuen tribunalak, alegia. Kuriaren oinordekoa zen (hasieran, bederen, herri-ordezkaritza zeukana), eta Uztaritzeko gaztelu parean zeukan egoitza. Zuzenbidean aditu ziren funtzionario judizialek osatzen zuten epaitegia. Presidentea, aldiz, bailea, noble bat izaten zen, erregearen ordezkaria eta zuzenbidearen ezagupenik gabea. Justizia-arloko eskumenak eta eskumen militarrik zituen. Horregatik, laster utzi zituen bere eskumenak teniente orokorraren esku; hura zuzenbidean aditua zen, eta denborarekin, bere kargua instituzio bilakatu zen, 1493tik aurrera berak presiditu baitzuen, izatez, Bailearen Tribunalak.

XV. mendetik aurrera, bi teniente izendatu ohi zituzten, bata kasu zibilak ezagutzeko, eta bestea kasu penaletarako. Ziur asko ez zen beharrezkoa izango Lapurdin sortzen ziren kasuak ebazteko bi teniente izendatzea. Adituek diotenez, Frantziako monarkiak kargu horiek dirua ateratzearren salgai jartzen zituen, eta familia ahaldunek erosi egiten zituzten; hori bide zen bi teniente egoteko arrazoiak, eta ez premia. Horregatik, 1757. urtean bikoiztasuna desagertu eta teniente bakarra gelditu zen. Belaunaldiz belaunaldi, familia ahaldunek izan zuten kargu hori euren esku, eta benetako epaile-dinastiak sortu ziren.

Tenientea zen, beraz, tribunalaren benetako presidentea. Erregeak izendatzen zuen biltzarrak eskainitako hiru izenen artean. Esperientziadun abokatuen aholkularitza zuen, eta elkarrekin egiten zituzten epaiketak. Erregearen prokuradoreak eta erregearen abokatuak ere bazuten bertan beren funtzioa, erregearen ordezkari gisa, eta bestelako funtzionarioak eta laguntzaileak ere biltzen zituen tribunalak. Tribunalaren eskumena lehenengo auzialdian oinarritzen zen, kasu zibilak eta penalak ezagutzeko. Tenientearen epaiak Lanneseko seneskalaren aurrean errekurri zitezkeen, Baionan. Eta, azken instantzia, Bordeleko parlamentua zen³³.

33. Lapurdiko sistema judizialari buruz: GOYHENECHÉ, E. *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse-Navarre*. Pau: Société Nouvelle d' Editions Regionales et de Diffusion, 1979; 271. or.;

2.2.6. Nafarroa Beherea

Nafarroa Behereko sistema judizialari buruz jarduteko, zenbait etapa bereizi behar dira:

- **1512. urtea aurretikoa:** Nafarroa Beherea, etapa honetan, Nafarroaren parte zen. Nafarroa zen. Ez zegoen lurraldea bitan zatituta. Bakarra zen. Garai hartan, hiru jurisdikzio zeuden, autoreen iritziz³⁴: *alkate txikia edo merkatuko alkatea*, herritarren auziak lehenengo auzialdian ezagutzen zituena; *alkate nagusia*, beste horien epaien apelazioa ezagutzen zuena; eta *Errege Gortea*, nobleen auziak ezagutzen zituen tribunala, hamabi gizon aberatsek osatua eta Gorteko alkatea buru zuena.
- **1512. urteaz geroztikoa:** Nafarroako erregeek berrantolatu egin behar izan zuten sistema judiziala, egoera berrira egokitzeko, Nafarroa Garaia Gaztelaren esku geratu baitzen. Hala, Nafarroako Kantzelaritza sortu zuten, Iruñeko Gortearen hutsa betetzeko. Urte horretatik hasi eta 1620. urtera arte, Pauen Nafarroako Parlamentua sortu arte, sistema judiziala horrela antolatzen zen: bailaretan edo eta estatuetan (herrialdeetan) banatutako lurraldeetan, justizia-administrazioa organo judizialek gauzatzen zuten, erregearen ordezkariak edo euren tenienteak (herriak aukeratutakoak eta epaile batek edo bik lagunduta) buru zirela. Lehenengo auzialdian kasu zibilak eta penalak ezagutzen zituzten, eta euren epaien apelazioa Nafarroako Kantzelaritzan aurkeztu behar zen. Hiribilduek euren epaimahaiak zituzten (*jurats*), eta nobleen arteko auziak zuzenean Nafarroako Kantzelaritzan ezagutzen ziren. Jaurerriek, halaber, euren jurisdikzioan eskumena zuten, berezko funtzionarioek gauzatzen zutena. Bestalde, 1611ko Foruak epaileen laguntzaile mordoak izendatu zituen: kartzelariak, atezainak eta notarioak, nafarrak eta euskaldunak izan behar zutenak, gainera. Azken auzialdia Nafarroako Kantzelaritzak ezagutzen zuen, esan bezala. Erregeak izendatutako funtzionario hauek osatzen zuten erakundea: presidenteak, kanzelariordeak,

sei kontseilarik, abokatu orokorrak eta prokuradore orokorrak.

- **Luis XIII.ak 1620an aldarrikatutako Batasun Ediktuaz geroztikoa:** Frantziako Koroak eskuratu zituen Nafarroako eta Biarnoko lurraldeak, ediktu haren bidez. Nafarroako Kantzelaritza desagertu eta egoitza Pauen zuen parlamentu subirano bakarrean batu zen, Biarnoko Kontseilu Subiranoarekin. Nafarrak neurri horren aurka jardun ziren baina ez zuten euren instituzioari eustea lortu. Onartu zitzairen gauza bakarra parlamentu berriak euren izena hartzea zen: Nafarroako Parlamentua. Organo hura izan zen baxenabartarren, zuberotarren eta biarnotarren azken instantzia judiziala Frantziako Iraultzan zehar. Organo haren sorrerarekin betiko galdu zen nafarren oinarriko printzipio bat: nafarrak Nafarroan epaitzea eta epaile nafarrak izatea. Paueko organo berriaren zuzendariak ez ziren euskaldunak, eta nafarrek hara joateko gastu guztiak beren gain hartu behar zituzten. Eragozpen horien ordain modura, Luis XIII.ak Saint-Palaiseko Seneskaltza sortu zuen, baina azken instantzia Nafarroako Parlamentua zenez, arazoak ez ziren konpondu.

2.2.7. Zuberoa

Zuberoako tribunal ezagunena Lixarreko Gortea da, Lixarreko intxaurrendopean betidanik bildutakoa, eta ziur asko, Bizkondearen Tribunalaren oinordekoa. Presidente, Mauleko kapitain-gaztelaua zen³⁵, eta arlo zibilean zein penalean eskumen unibertsalak zituen. Presidentearekin batera, tribunala Zuberoako hamar jaurerri garrantzitsuenetako jaunek osatzen zuten (zortzi egunean behin saioetara joan behar zuten), baita berrogeita hamar lurjabek ere (lau saiotik batera joatea aski zuten). Denborarekin, presidente-lanak haren tenientearen esku geldituz joan ziren. Notarioa ere bazen, erregeak izendatua, baita funtzio judizialak betetzen zituzten mezulariak ere. Gortearen jurisdikzioarekin batera, beste jurisdikzio berezi batzuk ere bazirela aipatu beharra dago, beste euskal lurraldeetan bezala.

34. LAGREZE. *La Navarre Francaise*, II; 146. or.; DESTREE. *La Basse Navarre et ses institutions. De 1620 a la Revolution*. Paris, 1954; 127-135. or. Interesgarriak dira, besteak beste, honako argitalpen hauek: GOYHENECHÉ, M. "Goi Nafarroatik Behe Nafarroara". *Historia-Geografia Koadernoak*, 11. Eusko Ikaskuntza, 1989; 33-38. or.; "Les institutions de la Monarchie navarraise en la genese du For moderne de Basse Navarre" *Jornadas sobre Cortes, Juntas y Parlamentos del Pueblo Vasco, Saileko Koadernoak, Zuzenbidea*, 6. Eusko Ikaskuntza, 1989; 103-107. or.; "Foru Orokorraren berrikuntza eta estatu hazkundearen zentzu modernoak Goi-Nafarroan eta Baxenabarren XVI-XVII mendeetan". *Saileko Koadernoak, Zuzenbidea*, 3. Eusko Ikaskuntza, 1986; 163-173. or.

35. GOYHENECHÉ, M. *Historia General del País Vasco, II (Evolución política e institucional entre los siglos XVI y XVIII)*. Donostia: Tarttalo, 1999-2000; 191, 192. eta 197. or.



Lixarreko Gorteak emandako epaiak apelatzeko, bi aukera zituen errekurritzaileak: Daxeko Gortera edo Lanneseko Seneskalaren Gortera joatea. Azken instantzia, horien ondoren, Guyanako epaile nagusia (Zuberoa ingelesen mende egondako garaian) edo Bordeleko Parlamentua (Zuberoa frantsesen mende egondako garaian) ziren. Saiakera bat baino gehiagoren ostean, 1691n Frantziako erregeak –‘Matalaz’ matxinoaren altxamenduaren ondorioz–, azken instantzia Nafarroako Parlamentuan kokatu zuen. Zuberotarrek Nafarroako Parlamentuaren aurrean euren ohiturak defenditzen jarraitu zuten, 1731n Frantziako Koroak debekatu zituen arte, eta ‘Cartas Patentes’ deritzenak derrigorrez aplikarazi. Foruen kontrako erasoak Lixarreko Gortea deuseztatzea lortu zuen, azkenean³⁶.

2.3. Espainiako 1931ko Bigarren Errepublika: euskal autonomia-estatutuak

XX. mendeko hirugarren hamarkadak dimentsio berri bat eman zion Hegoaldeko euskal lurraldeen autogobernuaren desioari. Helburua argia zen, autore gehienek iritiz³⁷: autogobernu horren isla izango zen autonomia-estatutu bat lortzea Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroarentzat. Ez zuten nahi zenbait eskumen ekonomiko eta administratibo biltzen zituen testu bat, ekonomia-itunak ordurako zehaztuta zuenaren jarraipen soila. Autonomia politikoaren bila abiatu ziren Hegoaldeko euskaldunak etapa hartan, lau lurraldeen berezitasunak errespetatuko zituen instituzio komun bat lortu nahian. Erregimen ‘neoforalaren’ eta ‘kontzertatuaren’ dimentsioa nabarmen gaitutuko zuen egoera politiko bat irudikatu nahi zuten, alegia. Espainiako estatuaren eta euskaldunen arteko hainbat mendetako liskar politikoari konponbidea topatzea zen erronka nagusia, egun indarrean dagoen autonomia-estatuaren aurrekari hurbilena.

Primo de Riveraren diktadura amaitu eta monarkia baztertuta, Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zen. Hegoaldeko euskal lurraldeen estatutua lortzeko bidean hainbat urrats eman ziren hurrengo urteetan. Lehenbizi, Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako *Euskal Estatuaren Aurreproiektua* azpimarratu beharra dago, Eusko Ikaskuntzak 1931ko maiatzaren 31n onartutakoa³⁸. Lehenengo aldiz erabili zen testu horretan “País Vasco” esamoldea, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa herri gisa batuta azaltzeko. Espainiako estatuaren barruan lau lurraldeek estatu autonomo bat osatzen dutela aldarrikatzen zuen estatutuak, eta lurraldeen arteko autonomia nabarmen zuten, era berean. Espainiako estatuarekiko harremanetan eredu federala, beraz, eta Hegoaldeko lau euskal lurraldeen artean, egitura konfederala. Foru-berrezarkuntzaz haratago joko zuen planta berriko ereduak marraztu zuen Estatuaren Aurreproiektuak, Suitzako ereduari jarraituz.

Botere judizialari bagagozkio, Estatuaren II. tituluko 4. artikulua, Euskal Herriko Auzitegi Gorenen sorrera aurreikusten du, eta, harekin batera, Euskal Kidego Judiziala azpimarratzen du, euskal epaile eta magistratuek osatua. Orobat, testuaren III. tituluko II. kapituluak botere judizialaren antolaketari buruz dihardu, 14. artikuluan, hain zuzen ere. Batik bat, hemen nabarmendu behar duguna zera da: Estatuaren Aurreproiektuak apustu argia egiten du berezko Euskal Botere Judiziala eraikitzearen alde, euskal estatu berriak antolatutako boterea, alegia. Proposamen horrek erabat aldatzen zuen Espainiar estatuko botere judizialaren egitura, berezko antolaketa argia proposatzen baitzuen³⁹: 1) Auzo-epaitegiak ezabatzea; 2) Lehenengo auzialdiko eta instrukzio-epaitegiak aldatzea; 3) Bilbon lurralde-audientzia bat ezartzea eta Iruñekoa mantentzea; 4) Probintzia-uzitegiak mantentzea; 5) Euskal Auzitegi Gorena sortzea, hiru salarekin: zibila, administrazioarekiko auzietarakoa eta lan-zuzenbidearen arlokoa. Auzitegi horren eskumenen artean, 14.5. artikulua esanbidez aipatzen zuen **kasazio-helegitea**, zuzenbide

36. Orobat, GOYHENECHÉ, E. “Fueros e instituciones de Zuberoa”. *Amigos del País hoy*. Bilbo: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Bizkaiko Batzordea, 1982; 35-37. or.

37. Etapa honi dagokionez, esanguratsua dira honako hauek, besteak beste: ARBELLOA, V.M. “Navarra ante el Estatuto Vasco (1932)”. *Historia* 16, 52. Madril, 1980; 19-28. or.; ARRESE, G. *El País Vasco y las Constituyentes de la Segunda República*. Madrid: Gráficas Modelo, 1932; BASALDUA, P. *El Estatuto Vasco y la República Española*. Buenos Aires, 1952; CASTELLS ARTECHE, J.M.; ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. *Historia de los Estatutos Vascos de Autonomía*. Zarautz: Comisión de Cultura Vasca de la Interprofesional de Estudios y Publicaciones, 1977.

38. Ezinbesteko irakurgaia da: ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. “Génesis del Estatuto General de Estado Vasco de Eusko Ikaskuntza”. *Saileko Koadernoak, Zuzenbidea*, 4. Eusko Ikaskuntza, 1989; 97. eta hurrengo orrialdeak. Testu horrekin batera, interesgarriak dira beste hauek ere: ORUETA, J. *Fueros y Autonomía*. Donostia, 1934; 172-189. or.; TAMAYO SALABERRIA, V.C. *Fuentes Documentales y normativas del Estatuto de Gernika*, 8. dokumentua. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1981; 21-27. or.; LUCAS MURILLO DE LA CUEVA, E. “El poder ejecutivo en el Proyecto de Estatuto de la Sociedad de Estudios Vascos”. *La Sociedad de Estudios Vascos y el Estatuto de Estado vasco de 1936*. *Saileko Koadernoak, Zuzenbidea*, 4. Eusko Ikaskuntza, 1989; 181-195. or.; LORCA NAVARRETE, A.M. “El poder judicial en el Estatuto General del Estado Vasco”. *La Sociedad de Estudios Vascos y el Estatuto de Estado vasco de 1936*. *Saileko Koadernoak, Zuzenbidea*, 4. Eusko Ikaskuntza, 1989; 197-201. or.

39. CELAYA IBARRA, A. “El Poder Judicial y los Estatutos de Autonomía”. *Simposium sobre el Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: IVAP, 1988; 719-768. or.

zibilaren eta merkataritza-zuzenbidearen aplikazioari dagokionez:

(...) creación de un Tribunal Supremo Vasco, con tres Salas, una de lo Civil, otra de lo Contencioso Administrativo y otra del Trabajo y Reforma Social, que entenderán: la primera, en los recursos de casación relativos a la aplicación del Derecho civil y Mercantil, y recursos gubernativos contra las calificaciones de los Registradores de la Propiedad de las cuatro Provincias...

6) Justizia-administrazioan jarduten dutenei, notarioei eta bestelako funtzionarioei, euskararen ezagupena galdatzea, ezinbesteko eskakizun gisa; 7) Euskal Kidego Judiziala osatuko duten kideak Euskal Auzitegi Gorenak aukeratzea eta izendatzea.

Estatutuaren Aurreproiektuak eztabaida sakonak eragin zituen euskaldunon artean, batez ere, Nafarroari buruzkoak eta akonfesionaltasunari buruzkoak. Eztabaida horien ondorioz, bi bloke nagusi sortu ziren alderdi politikoen artean, eta estatuko Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetara bakoitza bere testuarekin aurkeztu zen. Ezkerreko alderdiek proposatutako testua Aurreproiektukoaren oso antzekoa zen; eskuineko alderdiek aurkeztutakoa, ez hainbeste. Azkenean, Alkateen Mugimenduak antolatutako asanbladak beste testu bat hautatu zuen Lizarran, 1931ko ekainaren 14an: **Lizarrako Estatutua**, Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektua eskuinekoen, nazionalista konfesionalen eta karlisten gustura aldatuz eratutako testua⁴⁰. Udalerrri asko falta izan ziren asanblada horretan, eta ordezkatura zeudenek aldaketa nabarmenak egin zizkieten Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako aurreproiektuari. Garai bateko terminologiari heldu zion, berriro ere, Lizarrako Estatutuak; foru-berrezarpena aldarrikatu eta Aurreproiektuak proposatutako eredu federala alde batera utzi zuen. Adituen iritziz, Espainiako estatuaren errealitate konstituzionalarekin bat egiteko aukerak nabarmen gutxitu zituen horrek. Eskubide historikoen esamoldearen eraikuntzan oso elementu interesgarriak ditu Lizarrako testuak, egun erabiltzen diren formulen aitzindaria baita. Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektuak hainbeste zaintzen zuen euskaldunen arteko adostasunik ez zuen lortu Lizarrakoak, hala ere. Hori du, askoren iritziz, akatsik larriena. Botere judizialari bagagozkio, orobat, Lizarrako testuak ez zuen aldaketarik ekarri Aurreproiektuan jasotako diseinuari buruz.

Hainbat estatutu-proiektu proposatu ziren, baina Espainiako II. Errepublikako 1931ko Konstituzioa onartuta eta urte bereko abenduaren 8ko Dekretuari jarraituz, Espainiar estatuko behin-behineko gobernuak argi utzi zuen nork eratu behar zuen euskaldunon nahien euskarri juridiko-politikoak, hots, estatutu berria: lau diputazioetako batzorde kudeatzaileek, Espainiako Gobernuak aukeratu eta kontrolatuta. Lau diputazioetako batzordeek estatutuaren proiektua idatzi zuten, 1932ko martxoaren 21erako. Baina Nafarroako eskuindarren estrategiak Nafarroa prozesutik kanpo utzi zuenez (nafar udalerrien 2/3en baietza galdatzeko klausula onartzea lortu zuen eta bozketan ez zen ehuneko hori iritsi), eta Kataluniako Estatutua 1932ko irailaren 9an onartuta, beste proiektu bat jarri zuten martxan Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako diputazioen batzorde kudeatzaileek. Azkenean, 1933ko azaroaren 5ean erreferenduma egin zen. Parte-hartzea oso altua izan zen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, eta aise lortu zen Espainiako Errepublikako Konstituzioak galdatutako ehunekoa. Espainiako estatuko hauteskundeak egin ziren handik bi astera, eta eskuina garaile atera zenez, bertan behera gelditu zen estatutua.

Hala ere, aipagarria da batzorde kudeatzaileen 1933ko testuan botere judizialari 19.10. artikuluan egiten zaion erreferentzia:

Un fiscal asistido del personal dependiente que se estime preciso ejercerá en el Tribunal Superior las funciones propias de su Ministerio, con extensión en todo el País Vasco en orden a la vigilancia para el exacto cumplimiento de las leyes promulgadas por el mismo y a la intervención que le corresponde en los negocios judiciales que hayan de ser resueltos en todas sus instancias, y por virtud de los **recursos de casación y revisión exclusivamente por la Judicatura Vasca**.

Ikus daitekeenez, Eusko Ikaskuntzaren Estatutuaren Aurreproiektuak (14.5. art.), Lizarrako Estatutuak (14.5. art.) eta Batzorde Kudeatzaileen 1933ko Estatutuak (19.10. art.) botere judizialaren antolaketari buruz ari direnean, argi aipatzen dute Euskal Auzitegi Gorenaren edo Auzitegi Nagusiaren eskuduntza dela **kasazio-helegitea** ezagutzea; azken testuan, berrikuspen-helegitearekin batera⁴¹. Hala agertzen da Espainiako II. Errepublikaren bukaeran onartutako 1936ko Euskal Estatutuaren 3.3. artikuluan ere:

40. GRANJA SAINZ, J.L. *El Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: IVAP, 1988; 20-21. or.; ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. "La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)". *Saileko Koadernoak, Historia eta Geografía*, 14. Eusko Ikaskuntza, 1990; 445. eta 466. or.; GOTI ORDEÑANA, J. "La cláusula eclesiástica en el Estatuto de Estella". *La Sociedad de Estudios Vascos y el Estatuto de Estado vasco de 1936. Saileko Koadernoak. Zuzenbidea*, 4. Eusko Ikaskuntza, 1989; 115-151. or.; SAIZ VALDIVIELSO, A.C. "Religión y política en el Estatuto Vasco-Navarro de Estella. Autonomía para la oligarquía". *Historia Internacional*, 12. 1976; 24-29. or.

41. ESPARZA LEIBAR, I.; MARTÍN OSANTE, L.C. "El "Recurso Extraordinario" de Revisión Civil y Los Tribunales Superiores de Justicia: Situación actual y perspectivas". *Revista Vasca de Administración Pública*. 1991; 43. eta hurrengo orrialdeak.

El Tribunal Superior Vasco que será nombrado conforme a la legislación interior, tendrá jurisdicción propia y facultades disciplinarias en las materias civiles y administrativas cuya legislación exclusiva corresponda al País Vasco, conociendo de **los recursos de casación y revisión que sobre tales materias se interpongan.**

Testu horrek, 1936ko Estatutuak, 1933an onartutakoa hartu zuen abiapuntu, eta 1936ko martxoaren 1eko hauteskunde orokorren bigarren itzuliko emaitzei esker onartu zen, Indalecio Prietoren babespean⁴². Ezkerreko estatutua zen, EAJren hauspoari esker ere sortutakoa, batez ere, Agirreren laguntzari esker. Hasieran 53 artikulua zeuzkan, 9 titulutan bilduta, eta, bukaeran, bost titulu eta 14 artikulua soilik.

Gerra Zibilak Hego Euskal Herria bi zatitan banatu zuen: Arabak eta Nafarroak, gehiengo tradizionalista eta katolikoa zutenez, Altxamenduarekin bat egin zuten; Bizkaiak eta Gipuzkoak, gehiengo abertzalea eta ezkertiarra edukita, Errepublikarekin bat egin zuten. Gerra Zibilean, Espainiako Errepublikako Gobernuak, egoera zail hari aurre egitearren, Euskal Estatutua onartu zuen, 1936ko urriaren 6ko Legea dela medio. Hurrengo egunean, Madrileko Gacetak argitaratu zuen testua. Testu hori ez zuten herritarrek onartu, ez baitzen erreferendumik egin Espainiako Gorteek onartu baino lehen, 1933an ez bezala. Garai haietan estatutu hura izatea ezer ez izatea baino hobea dela uste zuten gure ordezkari gehientsuek, batez ere EAJren buruek, 1936ko hauteskundeetan emaitza onak izan baitzituzten. Azken testua beren nahia baino nabarmen apalagoa zen, eta gabezia teknikoak zituen, gainera. 1936ko testua ez zen herriak herriarentzat onartutako testua, 'emandako kartaren' tankera zuen, gehiago: eskubide historikoen, foruen eta euskal estatuaren erreferentzia oro ezabatuta geratu ziren, eta Nafarroaren etorkizuneko integrazioa ere ez zuen aipatzen⁴³.

Euskal lurraldeek berezko sistema judiziala galdu zuten. Estatuak kendu zien, alegia, justizia-administrazio bakar eta zentralizatuaren aldeko apustua burura eramanda. Iparraldeko lurraldeetan, erabat ezabatuta gelditu zen 1789ko Frantziako Iraultzarekin; Hegoaldeko dagokienez, berriz, 1876ko uztailaren 21eko Legea dela medio, Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako Foruak agortu egin ziren, zuzenbide publikoari dagokionez. Lau lurraldeok Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zenean aukera izan zuten euren sistema judiziala

berriro antolatzeko, Eusko Ikaskuntzaren 1931ko Estatutu Aurreproiektutik hasi eta 1936ko Euskal Estatutua onartu zenera bitartean. Francoren altxamendu militarrek, ordea, ezerezean utzi zituen prozesu haren emaitzak, 1937ko udan, eta egoerak ez zuen beste aldaketarik izan hura hil eta 1978an Espainiako Konstituzioa, gaur egun indarrean dena, aldarrikatu arte.

Euskal lurraldeek izandako justizia-administrazioko sistema guztien ezaugarri komun eta garrantzitsu bat ardatz hartuta egingo dugu hurrengo atalerako jauzia: herritarren arteko liskar juridikoak herriko epaile batek epaitzea izan da beti euskaldunen nahia, eta oro har, lorpena. Toki jakin bateko zuzenbidea zuzen interpretatzeko eta aplikatzeko ezinbesteko baldintza izan baita, mendeetan zehar, funtzio horren gaineko ardura duenak bertako ordenamendua ondo ezagutzea. Hala, maiz atea itxi izan zaie epaile arrotzei. Eta ideia hori dago gaur egungo eszenatoki judizialaren oinarrian, neurri batean bada ere; izan ere, egun, euskal lurraldeek berezko justizia-administratzioren ez duten arren, Hegoaldeko lau herrialdeek badute euren zuzenbide zibila 'etxean' interpretatzeko eta aplikatzeko aukera, estatuko ordenamenduak autonomia-erkidego batzuen Auzitegi Nagusiei esleitzen dien kasazio-helegitea baita hainbat mendetako ibilbide hari eusteko zirrikitu bakarra.

3. Espainiako 1978ko Konstituzioa: Estatu Autonomikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren eskumena kasazio eta berrikuspen-helegiteei dagokienez

3.1. Abiapuntua: marko juridiko orokorra

Indarrean dagoen Espainiako 1978ko Konstituzioaren 149.1. artikulua estatuaren eskumen eksklusiboak aipatzen ditu. Arau horren 6. atala honela mintzo da, prozedurazko legegintzari buruz:

El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: (...). 6ª. Legislación mercantil, penal y penitenciaria; **legislación procesal, sin perjuicio de las necesarias especialidades que en este orden se deriven de las particularidades del derecho sustantivo de las Comunidades Autónomas.**

42. BEOBIDE EZPELETA, I.M. "Prieto y la autonomía vasca: Un problema de Estado". *Estudios de Deusto*, XXX/1. 1982; 9-69. or.

43. FUSI AIZPURUA, J.P. *El problema vasco en la Segunda República*. Madrid: Turner, 1979; 126-141. or.

Araua argia da. Zenbait autonomia-erkidegok prozedura-arloko 'berezitasunak' dituzte, beharrezkoak diren heinean eta euren berezko zuzenbide substantiboan oinarrituak diren neurrian⁴⁴. Datu horrek beste baieztapen bat egitera garamatza, halaberrez: zenbait autonomia-erkidegok, zuzenbide substantibo eta prozedurazko berezitasun horien euskarri den berezko ordenamendu juridiko zibila dute, hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua hala baimentzen duelako:

El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: (...). 8^o. **Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan.** En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respecto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial.

Aipatu berri ditugun bi arauak lotzea da, orain, gure erronka. Horretarako, egin dezagun azalpena atalka.

3.2. Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua: *zuzenbide zibila, forala edo berezia*

Ikusi dugunez, EKren 149.1. artikulua estatutaren **eskumen eskusiboak** adierazten ditu, horien artean zuzenbide zibileko legeak egiteko ahalmena (EKren 149.1.8. artikulua). Hala ere, zuzenbide zibilaren eremuan, atal honek estatutaren eskumenaren gainetik – lehenetsuzkoa baita– jartzen du berezko foru-zuzenbidea duten lurraldeen eskumena, zuzenbide hura **kontserbatzeari, aldatzeari eta garatzeari** dagokionez, zehazki. Eskumen hori onartzea, ordea, ez da beharrezkoa, hautazkoa baizik. Autonomia-erkidego bakoitzaren esku geratzen da hura bere egitea, betiere, ezinbestez errespetatuta arauak zerrendatutako estatutaren eskumen eskusiboak.

EKren 149.1.8. artikulua berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoei hura **kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko** aitortzen dien eskumena dela eta, ordea, eztabaida handia sortu da azken urteotan doktrinan, **garatu** terminoaren zentzuari buruz. Izan ere, ez da gai makala: zenbateraino **garatu** dezake autonomia-erkidego batek bere zuzenbide zibila? Ba al du horretarako mugarik? Galdera horiei erantzun dieten adituen artean hiru ildo edo iritzi bereizten dira⁴⁵: **zabala, murriztailea eta erdibidekoa**,

44. LORCA NAVARRETE, A.M. "Foralidad Vasca y Derecho Procesal". *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje*, 6. liburukia, 3. koaderno. 1994; 571-575. or.: "Históricamente, el Derecho foral ha tenido en nuestro país una proyección esencialmente *ius civilista*. En el Fuero no es común hallar normas procesales lo que atestigua su indudable significación integradora *ius normativa*, en la medida en que, con independencia del reconocimiento puntual que en los fueros se realizan de garantías procesales en general, el Fuero siempre ha sido receptor de la normativa procesal contenida, primero en las leyes de Partidas y, luego en las leyes procesales que surgen con el movimiento codificador del siglo XIX. Por ello, y en la actualidad, no se justifica un Derecho procesal foral. El marco normativo constitucional vigente además no lo permite por afectar a garantías fundamentales que requieren un tratamiento unívoco en orden a la protección de derechos y libertades a través de la continuada y progresiva interpretación que realiza nuestro Tribunal Constitucional del importante artículo 24 de la Constitución entre otros. En tal sentido, la sola existencia de un Derecho civil foral vasco no supone el reconocimiento de un Derecho procesal con las mismas señas forales de identidad. Históricamente la foralidad ha sido ajena a las normas procesales que de ordinario se han situado al margen de la foralidad. Por consiguiente, ni ha existido un cuerpo normativo completo y sistemático de Derecho procesal foral, ni en la actualidad es posible proceder a crearlo ex novo por que esa creación iría contra la misma esencia de la foralidad que por propia naturaleza es proyección histórica esencialmente *iuscivilista* de usos y costumbres jurídicas, sin que, por demás, nuestra Constitución lo permita al atribuir al Estado como competencia exclusiva la regulación procesal (art. 149.1.5^o y 6^o). Pero aún si lo permitiera no sería foralismo procesal el producto legislativo final, sino simple y puro federalismo procesal. Por esta razón no es de extrañar que aunque esporádicamente el Tribunal Constitucional reafirme la competencia estatal exclusiva en materia de legislación procesal como es el caso de la STC 62/1991, de 22 de marzo, es también ese mismo Tribunal Constitucional el que ha reconocido el propio tiempo la posibilidad de que se puedan crear normas procesales por las CCAA cuando resulte que esa actividad legislativa sea inevitablemente precisa para ejecutar el Derecho foral propio (STC de 26 de junio de 1986). Pero, en modo alguno, esa normativa procesal es foral y si en cambio autonómica porque, si bien resulta obvio que su origen no es foral, su justificación legislativa es en cambio exclusivamente autonómica (art. 10.6 EAPV), al amparo del artículo 149.1.6^o según el cual el Estado posee la competencia exclusiva sobre la legislación procesal 'sin perjuicio de las necesarias especialidades que en este orden se deriven de las particularidades del derecho sustantivo de las comunidades autónomas'".

45. GETE-ALONSO Y CALERA, M^a.C. "La Codificación civil". *Manual de Derecho Civil, I, Introducción y Derecho de la persona*, 3. edizioa. Madrid: Marcial Pons, 2001; 46. eta 47. or.: "La explicación e interpretación de la palabra "desarrollo" del artículo 149.1.8 CE ha originado distintas posiciones doctrinales: 1^a. La interpretación amplia entiende que las Comunidades Autónomas pueden legislar, respecto de su Derecho civil sobre cualquier materia, sin más restricciones que la reserva de aquellas materias que ha hecho el Estado para sí mismo (PUIG I FERRIOL/ROCA TRIAS y la mayor parte de los juristas catalanes). Es ésta la que se acomoda mejor a los postulados constitucionales, si bien fue rechazada por la STC 88/1993 de 12 de marzo. 2^a. La posición intermedia considera que el límite de la competencia se encuentra en los principios contenidos en las Compilaciones. Esto, sin embargo, no impide que el legislador autonómico pueda regular "materias conexas" con el Derecho civil no comprendidas en las Compilaciones (DELGADO ECHEVERRÍA, BERCOVITZ Y RODRÍGUEZ CANO y la STC 88/1993 de 12 de marzo). 3^a. Las teorías restrictivas entienden que el límite de la competencia viene determinado por el contenido de las respectivas Compilaciones, más allá del cual no puede legislarse (DÍEZ-PICAZO/GULLÓN BALLESTEROS, LASARTE, GARCÍA AMIGO). El desarrollo, por tanto, se ve notablemente restringido".

Ikus, orobat: DELGADO ECHEVERRÍA, J. "Los derechos Cíviles Forales en la Constitución". *RJC*, 3. 1979; 145 eta hurrengo orrialdeak, eta "Doctrina del Tribunal Supremo sobre la competencia legislativa autonómica en materia de Derecho Civil", *Revista Aragonesa de Administración Pública*, 4. 1994; 361. eta hurrengo orrialdeak; eta BELLO JANEIRO, D. *El ejercicio de la competencia en materia civil por la Comunidad Autónoma Gallega: La Ley 4/1995, de 24 de mayo*. Madrid: Montecorvo, 1999.

azken hau Espainiako Konstituzio Auzitegiak 88/93 epaian berretsia. Ikuspegi zabalak, EKren 149.1.8. artikulua zerrendatzen dituen estatuaren eskumen eksklusiboak jotzen ditu muga bakartzat; murriztaileak, ordea, Konstituzioa aldarrikatu aurreko konpilazioen araudia hartzen du derrigorrezko helmugatza; erdibidekoa, berriz, araudi konpilatu horiekin erlazio zuzena duten instituzioak ere garatzeari lotuz.

Badira zenbait autonomia-erkidego, EKren 149.1.8. artikulua babespean eta 88/93 epaiak ezarritako mugaren baitan, autonomia-estatutuan beren zuzenbide zibila *kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko* eskumena jaso dutenak. Gogora dezagun, berez, eskumen hori ez dela ezinbestean bete beharrekoa, hautazkoa baizik. Eskumena bere egin arren, ordea, autonomia-erkidego guzti horiek ez dute foru-zuzenbidea deritzonaren gaineko lege autonomikorik egin, honako hauek baizik: **Katalunia, Aragoi, Balear Uharteak, Galizia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa**. Guri dagokigunez, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, uztailaren 1eko Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legean jasota dago bizirik dirauen euskal foru-zuzenbidea (Nafarroak 1973ko Foru Berria indarrean du, oraindik). Lege horiek arautzen ez dituzten esparruetan, ordezko araudia Kode Zibila da, jakina denez.

Hala ere, ezin aipatzeke utzi, puntu honetan bertan, **Valentziaren** kasua. Bitxia da Espainiako Konstituzioak autonomia-erkidegoak gai bakar batean diskriminatzea, hain zuzen ere, zuzenbide zibilean, edo hobeto esanda, legegintza zibilean. Izan ere, Espainiako Konstituzioak **foralismoa** hartzen du irizpide nagusitzat, 149.1.8. artikuluan ageri den eskumena aitortzeko. Eskumen hori *bide azkarra* erabili zuten erkidegoentzat zen, berez, haien estatutuetan eskumen hori aitortzen eta onartzen zutenentzat, alegia. Baina Aragoiren eta Balear Uharten kasuan, *bide azkarreko* autonomiak izan ez arren eta beren estatutuetan 149.1.8. artikuluko eskumena jaso ez arren, estatuak ez du horien legeen aurka jo, historikoki lurralde forudunak izan baitira. Valentziak ere luzaroan izan zuen indarrean bere ordenamendu propioa, eta gainera, haren estatutuaren 31.2. artikuluan bere egiten du EKren 149.1.8. artikuluko eskumena. Hala ere, bere **Errendamendu Historikoen Legearen** aurka egin zuen estatuak, antza Valentziako foru-zuzenbidea ez zegoelako bizirik Konstituzioa aldarrikatu zenean (bai, aldiz, aurreko bi erkidegoetan). Hala ere, estatuak onartu egin behar izan du, 121/1992 sententziaz geroztik, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak (EAK) hala ezarririk, EKren 149.1.8. artikulua aurreikusten duen foru-zuzenbidea edo zuzenbide berezia

garatzeko eskumena ez dagokiela konpilazioa izan zuten lurraldeei bakarrik, baita Konstituzioa aldarrikatu zenean *berezko ohitura pribatua* bizirik zutenei ere. Ere horretan (mugatua, hala ere) kokatu da Valentziako legea; bere ohituraren garapen konstituzionalaren barnean, alegia.

Nolanahi ere, Espainiako Konstituzio Auzitegiak 88/93 epaian bere eginiko erdibideko garapen-irizpideak berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoetako legebiltzarrei ezartzen dien muga hori ez da uste bezain argia. Are gutxiago, ikuspegi politikotik aztertuta, estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketan edo eta banaketa horren exekuzioan adostasunik ez badago. Esan nahi baita, EKren 149.1.8. artikuluan oinarrituta eskumena duten autonomia-erkidegoak maiz saiatu direla EAKren 88/93 epaiak jarritako muga gainditzen edo urratzen. Eta estatuak erantzun egin duela: batzuetan, garapenok Konstituzioaren kontrakoak direla eta helegiteak aurkeztuz, eta beste batzuetan –inguruabar politikoen arabera–, berriz, berak jarritako muga gainditzeari aurre ez eginez. Kontua ez da azalekoa. Eta horren adibide garbia dira **berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoek gauzatu dituzten legedi-ibilbide arras ezberdinak**. Batetik, eta garapen mailarik gorena islatuz, **Katalunia** dago; nolabaiteko eredu ‘federalari’ jarraiki bere Kode zibil propioa aldarrikatuz, estatuaren eskumen eksklusiboetan eskua sartu gabe [nahiz eta Kataluniako Autonomia Estatutuari buruzko Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiak, testu katalanaren 129. artikulua interpretatuz, autonomia-erkidegoen zuzenbide zibilen neurririk gabeko garapena oztopatzen saiatu, ‘materia konexuak’, ‘berrikuntza’ edo ‘hazkunde organikoa’ bezalako termino lausoak erabiliz]. Bigarren lerroan **Aragoi** legoke, bere orotariko lege zibilak kodetzeko nahiak bultzatuta, erritmo mantsoagoan eredu katalanerantz luzatuz begirada. Hirugarren kate-mailan **Galizia** jarri beharko genuke, izan duenaren eta egun duenaren arteko jauzia kontutan hartuz, Espainiako Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontarakotasun arazoek arnasa lasai hartzen uzten ez badiote ere. Hain justuki, **Nafarroaren** kontrako kasua: hain zuzenbide zibila oparoa izan du mendetan zehar, ezen haren garapenaren beharra urriagoa izan baita. **Balear Uharteak** eta **Euskal Autonomia Erkidegoa** kokatzen dira, egun, egoera kaxkarragoan; bi erkidegoek jasaten duten gehiegizko barne-zatiketak zailagotzen baitu, zoritxarrez, euren legeriaren garapen sendoa. **Valentziak**, finean, atek nahiko itxiak dauzkala ematen duen arren, 2009tik geldituta daukan oinordetzari buruzko legearen aldarrikapenarekin ‘mehatxu’ egiten dio EKren 149.1.8. artikulua interpretazio fosilizatuari.

Gauzak horrela, egun zabal-zabalik dago lerro hauetan zuzenean jorratzen ari garen gaiarekin zeharo loturiko dikotomiaren gaineko eztabaida: **foru-zuzenbidea versus zuzenbide zibil autonomikoa**. Zer da, bada, zuzenbide zibil autonomikoa eta zer foru-zuzenbidea? Luze hitz egin dute adituek gai honi buruz, eta posizio juridikoak ugariak dira, batera edo bestera⁴⁶. Argi dago eztabaidatutakoa ez dela, bederen, gako terminologiko hutsa: badu, atzetik, esangura juridiko eta politiko bat, eta, beraz, halako edo bestelako ondorio juridiko zein politikoak. Edozelan ere, oinarritzko arazo terminologikoari eutsiz, honako esamolde hauek topatzen ditugu aztergai diren testu garrantzitsuetan. Esaterako: (1) Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluan *derechos civiles, forales o especiales* esamoldea; (2) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5. artikuluan, ostera, *derecho civil foral y especial*. Azken batean, arazoa terminologikoa dela dirudien arren, eskumenaren oinarri bat ala bestea hautatzeak ondorio jakin batzuk ditu.

Zuzenbide zibilean, lehenengo atalean azaldu dugunez, foruak eta pribilegioak berdintzeko joera gaindituta, foru-zuzenbidea aipatzen denean, ez da adierazi nahi egoera berezi eta pribilegiatua edo irizpide bereizlea dagoenik. Askatasunean oinarritutako ohituretatik sortu eta pilatu diren arau juridikoek osatzen dute foru-zuzenbidea; berezitasunen bat aipatzekotan, bilakaera historikoak hala eraginda, kodetze-prozesurik jasan ez duen zuzenbidea dela esan daiteke. Sortu diren lurraldeetan lege orokorrak dira foru-arauak, legeak egiteko gaitasuna zutenean garatu ziren tokian tokiko arauak. Foru-zuzenbideak, berez, lurralde bateko foru-arauak eta erakunde propioak biltzen ditu, eta hortaz, lurralde jakin batzuetako zuzenbide osoa hartzen du bere baitan. Baina, azken bi mendeetan foru-jatorria duen zuzenbide pribatuarekin berdindu izan da foru-zuzenbidea. Horregatik, euskal foru-ondaretik bizirik iraun duten bertako erakunde zibilek osatutako multzoari deritzo

foru-zuzenbidea⁴⁷. Ildo honetan, Espainiako Konstituzioak foru-zuzenbide hori berezia dela esatea formazko akatsa edo erredundantzia soila dela diote aditu batzuek⁴⁸.

Espainiako Konstituzioak 149.1.8. artikuluan zenbait autonomia-erkidegori haien *zuzenbide zibila, forala edo berezia kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko* eskuduntza edo ahalmena ematen die, betiere Konstituzioa aldarrikatu zen unean zuzenbide horiek bizirik bazituzten (“allí donde exista”). Eta bitxia da, gainera, kompetentzia hori **legedi zibilari** dagokiola, foru-zuzenbideak zuzenbide zibil osoa bilduko balu bezala; hau da, foru-zuzenbiderik ez duten autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilari loturiko legerik egin izan ez balute bezala. Hori egia ez dela frogatu da; hots, tradizioz foru-zuzenbidearen barne sartu izan dena ez dela zuzenbide zibil osoa. Beste hainbat esparru zuzenbide zibilaren baitan kokatzen dira, eta autonomia-erkidegoek legeak egin dituzte horiei buruz, 149.1.8. artikulua eskuduntzatik at. Eta ez bakarrik berezko foru-zuzenbidea ez duten erkidegoek, badutenek ere egin dituzte zuzenbide zibilari buruzko legeak.

Argi ikus daiteke aurreko paragrafoan baieztatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan. Bertan jasotzen dira eskusiboki Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskuduntzak, eta egia esan, horietariko asko zuzenbide zibilarekin zuzenki erlazionatuta daude, eta legeak sortuz gauzatu dira. Alor ugari sartzen dira zuzenbide zibilaren esparruan, nahiz eta beste eremu batzuetako araudiarekin bateratua egon, administrazio-zuzenbidearekin, adibidez: 1. Mendi-basoak, oihanen erabilera eta zerbitzuak, abelbideak eta bazka-larreak; 2. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai-aintziretako arrantza; 3. Irakaskuntzari, kulturari, arteari, ongintzari, ardura sozialari eta antzekoei laguntzeko fundazio eta elkarteak, baldin eta beren funtzioak ia erabat

46. Adjektibo horiek aztertzen dituzte, besteak beste, honako hauek: GARCÍA CANTERO, G. “Por una interpretación del artículo 10.5 del Estatuto Vasco”. *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho civil, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982*. Oñati, 1983; 289-291. or.; ASUA GONZÁLEZ, C.I.; GIL RODRÍGUEZ, J.; HUALDE SÁNCHEZ, J.J. “Situación actual y perspectivas de futuro del Derecho civil vasco”. BERCOVITZ, Rodrigo; MARTÍNEZ-SIMANCAS, Julián (zuz.). *Derechos Civiles de España*, I. Iruña: Aranzadi, 1999; 141-143. or. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5. artikulua dimentsioa eta esamoldeak sakon aztertzen dituena. Esamolde horiek aztertzen ditu honako honek ere: BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R. “Derecho Civil Foral”, *Aranzadi Civil*, 18/2001; 11. eta 12. or. Eta hausnarketa interesgarriak biltzen ditu, halaber, beste honek: GIL RODRÍGUEZ, J. “Qué son los Derechos civiles forales”. *La Tierra de Ayala, Actas de las Jornadas de Estudios Históricos en conmemoración del 600 Aniversario de la construcción de la Torre de Quejana*. Arabako Foru Aldundia, 2001; 285. eta hurrengo orrialdeak.
47. ALKORTA IDIAKEZ, I.; KARRERA EGIALDE, M. *Euskal Zuzenbide zibilaren oinarriak*. EHU, 2007 (argitalpen elektronikoa).
48. GIL RODRÍGUEZ, J.; HUALDE SÁNCHEZ, J.J. “Prólogo” a la *Ley del Derecho civil foral del País Vasco*, 2. argitalpena. Madril: Tecnos, 1999; 41. or. Beste iritzi batekoak dira hauek: BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R. “La conservación, modificación y desarrollo de los derechos civiles forales o especiales allí donde existan”. *Derecho Privado y Constitución*, 1, 1993, 15-82. or.; PUIG I FERRIOL, L. “El denominado problema foral desde la perspectiva de un Centenario”, *Centenario del Código Civil* (Asociación de Profesores de Derecho Civil), II. Madril, 1990; 1.205-1.229. or. Baita hau ere: MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C.: “Notas para la interpretación del inciso “...allí donde existan” del artículo 149.1.8 de la Constitución”, *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho Civil*, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982, Oñati, 1983, 238. or. Zentzu berean, ikus: ARECHEDERRA ARANZADI, L.I. “Testar a la Navarra; Derecho consuetudinario guipuzcoano o descodificación”. *RJNav*, 1. 1986; 97. eta 98. or.

Euskal Herrian betetzen badituzte; 4. Adingabeen babes eta tutoretza, haiek kartzelatzeko eta bergizarteratzeko erakunde eta etxeen antolaketa; 5. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa; 6. Jabego intelektuala eta industrial. Askotariko legeak egin dira, zuzenbide zibilaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, Eusko Legebiltzarrak onartuak, alegia. Adibide gisa, hauek: Fundazioen 3/1998 Legea, otsailaren 12koa, Elkarleen 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Kooperatiben 1/2000 Legea, ekainaren 29koa (4/1993 Legea, ekainaren 24koa, aldatzen duena), edo Izatezko Bikoteei buruzko 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa.

Aurreko lerroetan esandakoak, beraz, iradokitzen digu, nolabait, Euskal Autonomia Erkidegoan –eta, noski, foru-zuzenbidea duten besteetan ere–, **zuzenbide autonomiko** bat dagoela, erkidegoak berak sortua, estatuak lagatzen dizkion eskuduntzetatik eratorria, alegia. Zuzenbide autonomiko horren barne, **zuzenbide zibila** dago, beste arlo batzuekin batera. Zuzenbide zibil hori, ordea, EKren 149.1.8. artikuluko eskuduntzetatik etor daiteke (1992ko Legea edo eta Izatezko Bikoteei buruzko Legea, adibidez) edo beste eskuduntza-tituluetan oinarritua, EKren 148. artikuluan aipatzen diren eta autonomia-estatutu bakoitzak eksklusiboki bere egiten dituenetan oinarritua. Batzar Nagusietan onartzen ziren foruek autonomia erkidegoko legebiltzarrak aldarrikatzen dituen lege lerruneko arauak ireki diete bidea. Garaiak aldatu egin dira.

Orain arte azaldutakoak, esan bezala, badu ondorio praktikorik. Adibide gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2004ko abenduaren 10ean emandako autoa aipatu daiteke. Auzitegiak bere eskumena aztertzen du auto horretan, kasazio-helegitea onartu ez izanagatik prozedurako alde batek aurkeztutako kexa-helegiteari erantzunez. Helegitea Kooperatibei buruzko Euskal Legean oinarritzen da, ekainaren 29ko 1/2000 Legean. Auzitegiak kasazioa ezagutzeko eskumena ezeztatzen du, kasu honetan, organo eskumenduna Espainiako Auzitegi Gorena dela eta. Erabaki hori arrazoitzeko emandako argudioen artean bereziki aipatzekoak dira honako hauek:

La competencia de la Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia para conocer, como Sala de lo civil, del recurso de casación, queda ceñida, según resulta de lo dispuesto por el artículo 73.1.a) de la Ley Orgánica del Poder Judicial, al “que establezca la ley contra resoluciones de órganos jurisdiccionales del orden civil con sede en la comunidad autónoma, siempre que el recurso se funde en infracción de normas del derecho civil, foral o especial, propio de la comunidad, y cuando el correspondiente Estatuto de Autonomía haya previsto esta atribución”.

No dudamos que a los términos foral y especial no cabe atribuirles, en todo caso, una misma significación. Pero tampoco nos ofrece duda, ya sea lo infringido derecho foral o derecho especial, que debe tratarse, en todo caso, de derecho civil propio de la comunidad, pues la competencia tan sólo corresponde a la Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia, como Sala de lo Civil, cuando de tal derecho se trata, ya sea la infracción de norma de derecho civil foral o de norma de derecho civil especial.

Lehenago esandakoari eutsiz, arestian aztertutako arazo terminologikoaren ondorioen dimentsioa nabarmendu daiteke auto horretan. Kooperatibei buruzko Euskal Legeak ez du zuzenbide zibilaren eremua bakarrik ukitzen, merkataritza-zuzenbidearen esparruan ere sartzen da. Baina, Kooperatibei buruzko Euskal Legea Euskal Autonomia Erkidegoan sortutakoa da, eta beraz, hemengo berezko zuzenbidea. Eta gainera, hein batean, zibila. Zuzenbide zibilaren eremuko lege-testuek ez dute eskumen-oinarria, halaber, EKren 149.1.8. artikuluan zertan eduki. Beste eskumen-eremu batzuetatik eratorriak izan daitezke, eta zuzenbide zibil autonomikoa osatzen duten heinean –ez foru-zuzenbidea, ezta zuzenbide berezia ere–, kasazioan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezagutu beharko lituzke, orain eta etorkizunean. Gauza bera gerta daiteke denbora gutxi barru, Izatezko Bikoteen 2003ko Legeari buruzko auziei buruz Auzitegi Nagusiak kasazioan aritu beharko duenean. Lege horrek ez du zuzenbide zibila soilik jorratzen, baina zuzenbide zibilarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat elementu biltzen ditu, eta zuzenean foru-zuzenbidearen eremuan sartzen ez bada ere, bada zuzenbide zibila, eta gainera, autonomikoa. Arriskua, beraz, argia da. Kasazio-helegitea dela medio, Justizia Auzitegi Nagusiak badu berezko zuzenbide zibila berrindartzeko aukera, baldin eta hori bada helburua. Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako jurisprudenzia oso urria da (2007ko maiatzaren 15eko epaira arte, 36 epai soilik). Epai horiek aztertu dituztenen arabera, foru-kutsu nabarmena dute, eta ez daude autonomia-erkidego osoan komuna izan behar duen ordenamendu zibila sortu eta indartzera bideratuak. Gainera, oro har, Kode Zibilera jotzen dute epaiok auziak ebazteko. Hala ere, nondik hasi ordenamendu zibil komuna sortzen, oraindik ere ez badago EAEko lurralde osora hedatuta berezko araudi zibila? Kontuan izanik, EAEko Legebiltzarrak horretarako eskumena baduela, Autonomia Estatutuaren 10.5. artikulua dela medio.

Beharrezkoa da, oso, EKren 149.1.8. artikulua proposatzen duen foru-zuzenbidearen esparru mugatuaren orde zuzenbide zibil autonomikoa ezarri eta,

behingoz, Espainiako Konstituzio Auzitegiak emandako 88/93 epaia zalantzan jartzea; eta noski, hartatik harago jotzea, Kataluniako Autonomia Estatutuaren 129. artikulua tankerara. Ordenamendu juridikoen pluraltasunak dakarren aberastasuna errespetatuz eta sustatuz. Bestela ere, inguruabar politikoek hala eskatu izan dutenean ere egin izan da, isilbidez. Hala erakusten du, esaterako, Espainiako Gobernuak, EKren 149.1.8. artikulua zehazten duen eskumen-antolaketa gainditzen zuela eta Izatezko Bikoteei buruzko Euskal Legearen kontra aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko helegitea gerora Espainiako Gobernuak berak bertan behera utzi izanak, Nafarroaren kontrakoa ez bezala, era honetako arrazoiak argudiatuta:

La decisión cuenta con el criterio favorable del Ministerio de Justicia y se enmarca dentro del objetivo del Gobierno de reducir la alta conflictividad acumulada entre el Estado y las comunidades autónomas, en un “nuevo entorno de cooperación y normalidad institucional” entre las Administraciones.

Argudio berak susta lezake beste edozein aldaketa juridiko-politiko.

3.3. Espainiako Konstituzioaren 149.1.6. artikulua: *prozedurazko berezitasunak*. Kasazio eta berrikuspen-helegiteen marko juridiko orokorra

Espainiako 1978ko Konstituzioak – Francoren diktadura eta Espainiako II. Errepublikako esperientzia oraindik denen oroimenean zela onartuta– euskal lurraldeen

foru-zuzenbidearen eta prozedurazko zuzenbidearen arteko erlazioa berriro zehaztu zuen, 148.1.6. artikulua dela medio. Gogora dezagun artikulua horrek prozedurazko legegintza estatuen eskumen eskusibo dela aldarrikatzen duela, *sin perjuicio de las necesarias especialidades que en este orden se deriven de las particularidades del derecho sustantivo de las Comunidades Autónomas*. Konstituzioak, beraz, adierazten du zenbait autonomia-erkidegok, beren berezko zuzenbide substantiboak hala galdatzen duenean, (149.1.8. art.) prozedurazko berezitasunak izan ditzaketela, hots, prozedurazko berezko araudia sor dezaketela (149.1.6. art.). Berezitasun horiek, hala ere, beharrezkoak eta autonomia-erkidego horien berezko zuzenbidearen partikulartasunetatik eratorriak izan behar dute, gainera. Ildo horretatik, besteak beste⁴⁹, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.6. artikulua bere egiten du eskumen hori, berezko zuzenbidearen berezitasunetatik eratorritako prozedurazko arauari dagokienez⁵⁰.

Baina EKren 149.1.8. artikuluekin gertatzen den bezala, honako atal honek interpretazio-arazoak eragin ditu. Eusko Legebiltzarrak 1992an Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aldarrikatu zuenean, Espainiako Konstituzio Auzitegiak, beste atal batzuen artean, Legearen 102.2.2., 123.2 eta 123.3. artikuluei buruzko konstituzio-kontrakotasuneko helegitea izapidetu zuen. Helegitea Espainiako Gobernuak jarri zuen, eta, EKren 161.2. artikulua bertutez, errekurritutako arauak esekitzea eskatzen zion Auzitegiari. Hark eskaera onartu zuen, eta helegitea ebatzi bitartean, errekurritutako arau guztien indarra etena gertatu zen. Helegitean zioen Espainiako gobernuak arauok prozedurazkoak zirela, eta prozedura-erloko arauak sortzea estatuen eskumen eskusibo zela. Autonomia-erkidegoek bakarrik

49. Berezko ordenamendu juridiko zibila duten beste autonomia-erkidego batzuek ere euren autonomia-estatuetan bere egin dute EKren 149.1.6. artikuluan adierazten den eskumena: Galizia (27.5. art.), Aragoi (71.3. art.), Katalunia (130. art.), Balear Uharteak (31.2. art.) eta Nafarroa (ez du esanbidez jasotzen, baina bai era orokorrean, 39.1.c) artikuluan. Zalantzak ditut eskumena esanbidez onartuta dagoen ala ez interpretatzeko orduan).
50. LORCA NAVARRETE, A.M. “Hacia la construcción metodológica de un Derecho Procesal Vasco”. *Saileko Koadernoak*, 4. Eusko Ikaskuntza, 1989; 275-281. or.: “El método para construir el actual Derecho Procesal ha de pasar necesariamente a través de las previsiones de la Constitución española y del marco estatutario. Este es, como ya he puesto de manifiesto, el punto de partida metodológico y a partir de ahí se impone la labor de presente y de futuro. Pero lo cierto es que este punto de arranque metodológico hasta el momento presente y basándome en mi propia documentación legislativa a través de las disposiciones promulgadas en el Boletín Oficial del País Vasco ha sido muy poco utilizado. La “generosidad” de los constituyentes de la Constitución española parece que todavía no ha calado suficientemente en la labor legislativa del autónomo vasco y salvo aspectos puntuales como pueda ser el Decreto 94/1983 de 25 de abril del Gobierno Autónomo Vasco sobre el procedimiento ante las Juntas Arbitrales del País Vasco en materia de Arrendamientos rústicos, lo cierto es que a pesar de contarse ya con un punto de arranque metodológico, sin duda valioso, el autónomo vasco no se atreve a promulgar legislación procesal perteneciente o propia de sus derechos sustantivos. Es más y es asimismo constatable que antes de acudir a la normativa procesal prefiere la solución del procedimiento administrativo. Y baste un ejemplo: el Decreto legislativo 5/1986 de 9 de septiembre sobre publicidad engañosa (BOPV nº 176, de 1986). En esa hipótesis en lugar de estructurar el autónomo vasco un proceso civil con la finalidad de impedir la publicidad engañosa que tuviera encaje en una protección estrictamente jurisdiccional (de Juzgados y Tribunales) incomprensiblemente se opta por la vía del procedimiento administrativo (no jurisdiccional) con competencias para conocer de la prohibición o el cese de una publicidad engañosa. Pero lo curioso es que luego el propio autónomo vasco da normas sobre legitimación, medidas cautelares y contenido de la resolución administrativa, las cuales en la hipótesis en que hubiera optado por la solución estrictamente jurisdiccional estructurarían un auténtico proceso jurisdiccional y en ningún caso administrativo”.

izango dute legeztatze aukera hori, beren arau substantiboen partikulartasunetatik eratorritako prozedurazko berezitasunak diren heinean⁵¹. Helegitean, Espainiako Gobernuak dio berezitasun horiek foru-zuzenbidearen beharrezko ondorioak izan behar dutela EKren 149.1.6. artikularen markoan sartzeko, prozedurazko defentsaren ikuspuntutik nahi eta nahi ez ondorioztatzen direnak. Hala ere, 1993ko martxoaren 30eko autoan, Espainiako Konstituzio Auzitegiak arauok berriz indarrean jartzen ditu, eta 1993ko abenduaren 1eko autoan Espainiako Gobernuak konstituzio-kontrakotasuneko helegitea bertan behera uzten duela adierazten du.

Doktrinan, Espainiako Gobernuak aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko helegiteen aurkako iritziak daude, hain justuki, gobernuak errekurritutako arauak 'beharrezkoak' ez direla adieraztearen aurkakoak. Egia da, iritzi horiek diotenez⁵², EKren 149.1.6. artikularen arabera autonomia-erkidegoek izango dituzten prozedurazko berezitasunek euren zuzenbide substantibotik eratorriak izan behar dutela, eta gainera, beharrezkoak. Hala ere, 'beharrezkoa' izatea galdatzea erlatiboa da: ez da ari, izatez, behar metafisiko bati buruz EKren araua, bestela ez luke ezertarako balioko. Justiziak eta ekitateak gomendatzen dituzte errekurritutako arau horiek, arau substantiboari prozedurazko trataera egokia eskaintzeko, auzipetuei erraztasunak emateko eta, oro har, Bizkaiko

zuzenbidearen berezitasunak errespetatzeko eta kontuan hartzeko.

Azaldutakoaren harira, beraz, Espainiako 1978ko Konstituzioa aldarrikatu zenetik, prozedurazko zuzenbidea birkokatu egin da. Alde batetik, PZLren 1. artikulua aipatu beharra dago: *Principio de legalidad procesal. En los procesos civiles, los tribunales y quienes ante ellos acudan e intervengan deberán actuar con arreglo a lo dispuesto en esta Ley.* Artikulu hori bat dator EKren 149.1.6. artikularekin, prozedurazko legegintza Estatuaren eskumen eskusibotzat aitortzen baitu EK-k, jakina denez. Hala ere, zenbait autonomia-erkidegori euren prozedurazko arauak sortzea baimentzen die, betiere, euren zuzenbide substantiboaren berezitasunek beharrezkotzat dituztenean. Ildo horretan koka daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1992ko EHFZZLren 1.1. artikulua: *Lege honetako xedapenek, ohiturak eta bere tradizioaren arabera mamitzen duten zuzenbide-oinarri orokorrek osatzen dute Euskal Herriko Lurraldeen Foru-Zuzenbide Zibila.*

Artikulu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko foru-zuzenbidearen iturriak aipatzen ditu. Beraz, EKren 149.1.6. artikulutik abiatuta, eta PZLren 1. artikularen osagarri gisa, EHFZZLren 1. artikulua lege hori bera, ohitura eta printzipio orokorrak kokatzen ditu Autonomia Erkidegoaren foru-zuzenbidearen iturri gisa, bai zuzenbide zibilari gagozkiola baita

...
"Con un criterio ya tradicional por parte de la doctrina, el camino que generalmente se viene siguiendo en la exposición y estudio del Derecho Procesal Común a nivel de investigación y docencia, parte de la distinción entre una parte general y una parte especial en la exposición y estudio del Derecho Procesal Común. La parte general implica el desarrollo de la teoría general del proceso y la especial por su lado, atañe al estudio e investigación de la tipología especial de cada proceso en particular. Ahora bien, ¿es aplicable esta metodología al Derecho Procesal Vasco? Sin duda creo que sí. En el momento actual y aún cuando sólo sea de modo ciertamente incipiente el Derecho Procesal Vasco se asoma a la Parte General de su exposición y estudio. Así, y a título meramente enunciativo hay que dejar constancia de la actual contribución al desarrollo de una parte general de las siguientes materias: a) a propósito de la conciliación, el procedimiento ante las juntas arbitrales del País Vasco en arrendamientos rústicos reguladas mediante Decreto del Gobierno Vasco 94/1983 de 25 de abril (BOPV nº 71 de 1983); b) con ocasión de la excepción perentoria nº 7 del art. 533 LEC, el agotamiento de la vía administrativa pasará a través del Decreto del Gobierno Vasco 14/1983 de 24 de enero que creó y organizó el Tribunal Económico Administrativo de Euskadi (BOPV nº 17 de 1983); c) el estudio del recurso de casación derivado del derecho Sustantivo Foral y Autonómico Vasco; y d) el estudio del recurso de casación derivado del derecho Sustantivo Foral y Autonómico Vasco. Pero donde por ahora la metodología propia del Derecho Procesal Común está surtiendo mayores frutos es en el estudio de la parte especial del mismo y en su derivación en el planteamiento de un Derecho Procesal Vasco. En concreto es posible que la metodología hasta aquí utilizada permita aludir a dos tipos de procesos declarativos especiales: A) Procesos declarativos especiales: a) de responsabilidad civil del Presidente o Lehendakari y miembros de su gobierno, así como de todos o la mayor parte de los magistrados de una Audiencia Provincial; b) impugnación de acuerdos tomados en Asamblea General de cooperativistas vascos con arreglo a la Ley de Cooperativas Vasca. B) Procesos civiles declarativos especiales cuya tipología tan sólo se refleja a nivel de procedimiento administrativo, no de procedimiento jurisdiccional. a) Proceso para impedir la publicidad engañosa regulado por Decreto legislativo del Gobierno Vasco 5/1986 de 9 de septiembre sobre publicidad engañosa (BOPV nº 17 de 1986). b) Proceso sobre el secreto estadístico vasco regulado por Ley 4/1986 de 23 de abril de Estadística de la Comunidad Autónoma Vasca de Euskadi (BOPV nº 211 de 1986); c) Proceso sobre deslinde y amojonamiento de los bienes que integran el patrimonio de la Comunidad Autónoma Vasca regulado por Decreto 238/1986 de 4 de noviembre (BOPV nº 226 de 1986)".

51. LORCA NAVARRETE, A.M. "Derecho procesal y foralidad vasca". *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje*, 8. liburukia, 3. koaderno, 1996 iraila; 396-403. or. "Un examen particularizado y atento del vigente fuero vizcaíno muestra aspectos de especial interés desde el punto de vista procesal en cuestiones relativas a la troncalidad, la sucesión foral, la comunicación foral de bienes, la saca foral y, en fin, en el tratamiento que el fuero realiza sobre las servidumbres. Pero, al mismo tiempo, una lectura atenta de ese mismo fuero vizcaíno pone de relieve que en él confluyen normas procesales de indudable justificación y origen autonómico –específico– por exigencias de la foralidad, con otros supuestos en los que la técnica a utilizar no es propiamente la de crear norma procesal alguna sino más bien se trata de utilizar la remisión procesal legislativa tipo contenida en la LEC. No obstante, tanto en unos supuestos como en otros, es posible aludir a una normativa procesal de justificación exclusivamente foral. No es aventurado indicar, que la incidencia del ordenamiento procesal –esencialmente civil– posee su mejor acomodo en el fuero vizcaíno que es el más extensamente regulado en la Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho civil foral vasco".

52. CELAYA IBARRA, A. *Derecho civil vasco*. Bilbo, 1994; 50-51. or.

prozedurazko zuzenbideari bagagozkio ere. Hala, EHFZZL da lehenengo iturria, Euskal Autonomia Erkidegoaren foru-zuzenbideari eta, ondorioz, hartatik eratorritako eta beharrezko prozedurazko 'berezitasunei' dagokienez. Ohitura eta printzipio orokorrak legearen atzetik, baina haren baitan kokatuta, noski. Berezko zuzenbide zibila eta, ondorioz, horrek behar dituen prozedurazko berezitasunak sortzeko eta ordenamendu juridiko autonomikoek oraina eta geroa izateko, oso beharrezko jotzen da, nola ez, berezko iturri-sistema bat edukitzea, estatuaren eskumen eskusiboan gaintetik errespetatu beharko dena, EKren 149.1.8. artikulua adierazten duenari jarraituz. Beraz, lehenetasunez aplikatu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren zuzenbide zibilari buruzko auzietan, bertako iturri-sistema osatzen duten elementuak (substantiboak eta prozedurazkoak), ordezkotako zuzenbidearen gaintetik. Eta ordezkotako hori aplikatu behar bada ere, berezko iturri-sistema errespetatuz aplikatu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurraldeentzat komuna izanik (EHFZZLko 1.-4. art.).

Iturri-sistema horren osagarria da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako jurisprudentzia. Hala adierazten du EHFZZLren 2. artikulua: *Jurisprudentziak osatuko du Foru-Zuzenbide zibila, berau ulertu eta ezartzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Zibileko Salak emandako jarraituzko irizpideekin*. Jurisprudentzia-doktrina hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandakoa, iturri-sistemaren osagarri gisa ageri da EHFZZLren 2. artikuluan, kasazio-helegitea eta berrikuspen-helegitea ebazterakoan sortutakoa, alegia. Estatuarentzat bezala, logikoa da berezko zuzenbide zibila eta beharrezkoak diren prozedurazko berezitasunak dituzten autonomia-erkidegoek ere euren ordenamendua interpretatzerakoan eta aplikatzerakoan sortutako berezko jurisprudentzia doktrina edukitzea⁵³.

Nolabait, datu hori litzateke hainbat mendez gure lurraldeek izandako berezko justizia-administrazio haien filosofiatik gelditzen den hondarra: berezko ordenamendua lurraldean bertan interpretatzea eta aplikatzea.

Foru-kasazioaren eta berrikuspen-helegitearen marko juridiko orokorra kokatzen duten aurretiazko legezko xedapenak hauexek dira: EKren 152. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 14. artikulua⁵⁴, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Legearen (BJKNL) 70.-73. artikulua eta Prozedura Zibilaren Legearen 478. artikulua. Espainiako 1978ko Konstituzioak 152.2. artikuluan onartzen ditu autonomia-erkidegoetako justizia-azitegi nagusiak, Espainiako II. Errepublikaren garaiko Euskal Herriko eta Kataluniako auzitegi nagusiak aitzindari dituztenak, garai hartako konstituzioak eta bi autonomia-estatuak jasotzen duten bezala. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia 1989an sortu zuten, urte horretako maiatzaren 10eko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Akordioaren bidez, hain zuzen ere. EAEko Justizia Auzitegi Nagusia ez da berezko justizia-administrazioaren isla, hala ere, II. Errepublikaren garaian ez bezala. Estatuan, botere judiziala bakarra da, jurisdikzio-batasuna duen heinean. Autonomia-erkidegoetako justizia-azitegi nagusiak hari egokitzeko organoak dira, Espainiako Konstituzioaren adierazpenen oinarrian eta haren mendean sortutakoak, eta inola ere ez justizia-administrazio paralelo eta bereizi bat artikulatzen dutenak. Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua marrazten duen estatu autonomikoaren isla besterik ez dira, Administrazioaren deszentralizazioarena. Hala jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuaren 14. artikulua ere. Espainiako Konstituzioak, eta ondorioz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Legeak aurreikusten dituzten eskumenen garapenerako sortutakoak dira, alegia. Horregatik, Espainiako Konstituzioaren araudian,

53. Berezko ordenamendu juridiko zibila duten beste autonomia-erkidegoek ere beren estatutuaren bere eginda dute foru-kasazioa ezagutzeko eskumena: Nafarroa (61.1.a art.), Galizia (22.1.a art.), Katalunia (95.3. eta 4. art.), Balear Uharteak (94.1.a art.), eta Aragoi (63.2. art.).

54. ESPARZA LEIBAR, I.; MARTÍN OSANTE, L.C. "El Recurso extraordinario...". *cit.*; 51. eta 52. or.: "El proceso estatutario vasco se inicia a finales de 1978, con cierto retraso en relación con los trabajos del Estatuto Catalán. La ponencia redactora del Anteproyecto de Estatuto de Autonomía tomó como texto inicial el Proyecto presentado por el PNV, cuyo artículo 15 decía: "La competencia de los órganos jurisdiccionales del País Vasco se extiende: 1. En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y revisión en las materias cuya legislación corresponde al País Vasco". Este precepto, con pocas modificaciones, será el que quede definitivamente aprobado y servirá de modelo para otros Estatutos de Autonomía, como el catalán, por ejemplo. La Ponencia redactora en su texto base, o primer Anteproyecto tomó este precepto, tal y como lo redactó el PNV, y lo pasó al art. 14, donde se mantendría hasta la redacción definitiva. En el segundo Anteproyecto de la Ponencia se sustituyó la expresión "órganos jurisdiccionales del País Vasco" por la de "órganos jurisdiccionales en el País Vasco" y a la expresión "materias cuya legislación corresponde al País Vasco" se añade el calificativo de "exclusivas", quedando como "materias cuya legislación exclusiva corresponde al País Vasco". Este texto, ya sin modificaciones, será el del Proyecto de Estatuto aprobado por la Asamblea de Parlamentarios Vascos el 29 de diciembre de 1978 y presentado el mismo día en el Congreso de los Diputados. Una vez en el Congreso de los Diputados el texto sufrirá una modificación de cierta relevancia. La Ponencia Mixta formada por miembros de la Comisión Constitucional del Congreso y por delegados de la Asamblea de Parlamentarios Vascos sustituye en su informe la expresión "materias cuya legislación exclusiva corresponda al País Vasco" por la expresión "materias del Derecho Civil Foral propio del País Vasco" y este precepto fue aprobado sin discusión en el seno de la Comisión Constitucional del Congreso con la asistencia de la Delegación de la Asamblea de Parlamentarios Vascos. De este modo, quedó definitivamente redactado el art. 14.1.a) del EAPV cuyo texto es el siguiente: 'La competencia de los órganos jurisdiccionales en el País Vasco se extiende: a) En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y revisión en las materias del Derecho Civil Foral propio del País Vasco'".

autonomia-erkidegoetako auzitegi nagusien erreferentzia ez dira botere judizialaz ari diren artikulua, autonomia-erkidegoen antolakuntzaz ari direnak baizik.

Hiru atal edo sala dauzka EAEko Auzitegi Nagusiak: (1) Zibila eta Penala, (2) Administrazioarekiko auzi-prozesuena eta (3) Lan-arlokoa. Gure gaiari dagokionez, beraz, bi eskumen garrantzitsu dauzka, Zibileko eta Penaleko Atalak edo Salak: (1) **kasazio-helegitea** ezagutzea, Autonomia Erkidegoko gainerako organo judizialek emandako epaien kontra, betiere, helegiteok berezko zuzenbide zibila urratzeagatik ezarriak badira; (2) **berrikuspen-helegitea**, epai irmoak berrikusteaz arduratzen dena, Autonomia Erkidegoko gainerako organo judizialek emandako epai irmoen kontra, betiere, helegiteok berezko zuzenbide zibila urratzeagatik ezarriak badira. Kasazioa ebazteko eskumena Justizia Auzitegi Nagusiko Zibil eta Penal Ataleko presidenteak du, aldi berean Justizia Auzitegi Nagusiko presidente ere badenak (Botere Judizialaren Mugape eta Antolaketari buruzko 38/1988 Legearen 13.2. art.). Artikulu horrek dioenari jarraituz, atala edo sala osatzen duten beste magistratuetatik bat (bi badira) edo bi (lau badira), autonomia-erkidegoko legebiltzarrak aurkeztutako hautagaien artetik aukeratuko dira, Justizia Ministroak aurkeztutako Errege Dekretu bidez (BJLOren 316. art.), Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren proposamena dela medio (BJLOren 330.4. art.):

En las Salas de lo Civil y Penal de los Tribunales Superiores de Justicia, una de cada tres plazas se cubrirá por un jurista de reconocido prestigio con más de 10 años de ejercicio profesional en la comunidad autónoma, nombrado a propuesta del Consejo General del Poder Judicial sobre una terna presentada por la Asamblea legislativa; **las restantes plazas serán cubiertas por magistrados nombrados a propuesta del Consejo General del Poder Judicial entre los que lleven 10 años en la**

categoría y en el orden jurisdiccional civil o penal y tengan especiales conocimientos en derecho civil, foral o especial, propio de la Comunidad Autónoma).

4. Euskal zuzenbide zibilari buruzko prozedura judizialak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian: kasazioa eta berrikuspena

Kasazio-helegitea ezohiko helegitea da. Ezohikoa da, errekurragiak diren ebazpenak mugatuak direlako, eta ebazpenok aurkatzeko kausak esanbidez legegileak berak aurreikusten dituelako. Kasazio-helegitearen helburua ebazpenak baliogabetzea da, baldin eta arauen bat urratzen badute, materiala edo prozedurazkoa; baina helegitea ezagutu behar duen *ad quem* organoak egitateak eta frogak berriro balioesteko aukerarik ez du, lehenengo eta bigarren auzialdiko organoei baitagokie hori.

Tradizioz, kasazio-helegitearen funtzioa 'nomofilaktikoa' izan da, hots, legebiltzarrak estatu osorako onartutako legeen aplikazio zuzena bermatzea. Espainiako Konstituzioaren 123.1. artikulua Espainiako Auzitegi Gorenari esleitzen dio eskumen hori. Frantziako estatuan sortu zen auzitegi gorenaren figura –Errege Kontseilua aitzindari duena–, hain zuzen ere, estatu osorako legeen aplikazio zuzena bermatzeko; horretarako, beheko instantzietako organoek emandako epaiak 'kasatu' edo 'apurtzeko' ahalmena du. Funtzio nomofilaktikoarekin batera –auzipezuak babesteko funtzioaz gain–, kasazio-helegitearen bitartez legeen interpretazio uniforme eta bateratua bilatzen da, Auzitegi Gorenaren jarraikako epaiak sortutako jurisprudenzia-doktrina dela medio⁵⁵. Autoreen iritziz, funtzio

55. RODRÍGUEZ CABAJO, J.R. "Los recursos de casación en el Estatuto de Autonomía de Cataluña". *Actualidad Administrativa*, 20. zk. *Kasazioaren Oinarrien Atala*, Azaroak, 16-30, II. liburukia. 2009. La Ley, 2.481. eta hurrengo orrialdeak: "Recordemos las tres funciones que puede desempeñar un Tribunal de Casación: una función nomofiláctica destinada a la defensa de la ley, del Derecho objetivo, corrigiendo las infracciones que de la misma se llevasen a cabo por los Tribunales inferiores, una segunda función destinada a proteger el *ius litigatoris*, es decir, a restablecer los derechos subjetivos de las partes y una tercera función destinada a proteger el *ius constitutionis*, es decir, a conseguir la uniformidad de los pronunciamientos judiciales. Cada una de las modalidades de recurso de casación tiende a proteger una o varias de esas finalidades por lo que, en principio, debe dejarse abierta la posibilidad de que el legislador estatal orgánico-procesal pueda atribuir al TS el conocimiento de las tres modalidades casacionales existentes: ordinaria, unificación de doctrina y en interés de Ley.

Sin embargo, esa interpretación se encontraría con obstáculos derivados de las iniciativas de determinados Grupos Parlamentarios que han dejado claro su deseo de atribuir la casación ordinaria a los Tribunales Superiores de Justicia y dejar para el TS sólo la unificación de doctrina. En ese sentido podemos recordar la proposición no de ley formulada por el Grupo Parlamentario Vasco presentada en la Mesa del Congreso de los Diputados con fecha de 1 de junio de 2004 que fue apoyada por otros Grupos, especialmente de parlamentarios pertenecientes a partidos de ámbito autonómico, en la cual se requería al Congreso de los Diputados para que instase al Gobierno a acometer las reformas necesarias para atribuir al Tribunal Supremo la defensa del *ius constitutionis*, reservando sus competencias casacionales al recurso de casación para la unificación de doctrina, "prescindiendo de la casación derivada del denominado "*ius litigatoris*", atribuyendo la casación ordinaria a los Tribunales Superiores de Justicia de las Comunidades Autónomas"; recordaba la justificación de esa enmienda el carácter compuesto y no unitario del Estado español, carácter que, reconocido en el ámbito tanto del Poder Legislativo como del Ejecutivo "no ha sido todavía incorporado al Poder Judicial, a la Administración de Justicia, ni tampoco a la función jurisdiccional, función esencial que constituye un poder del Estado".

Autoreak gaur egun puri-purian dagoen afera batez dihardu. Espainiako Konstituzio Auzitegian errekurrituta dagoen 2006ko Kataluniako Estatutuaren 95.2. artikulua interpretazioa, eta, ildo horretatik, kasazioa ezagutzeko estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa edo, hobe, birbanaketa.

